

Lan-dokumentuak
III. Jarduera-plana

Erronka demografikoa:
2030erako Euskal Estrategia
Eraldaketarako planak

2021eko abenduaren 14a

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia
Lehendakaritza – Eusko Jurlaritz

AURKIBIDEA

- 1. Esparru estrategikoa.**
- 2. Jarduketa-plana.**
- 3. Interpretazio- eta jarraipen-esparrua.**

1. Esparru estrategikoa

Erronka demografikorako 2030erako Euskal Estrategiaren oinarrien proposamena esparru estrategiko batean kokatzen da. Esparru horren osagai nagusiak honako hauek dira: ikuspegia, misioa, helburuak, irizpide metodologikoa, jarduketa-planaren egitura eta etapen programa.

1.1. Ikuspegia

Estrategia honetan identifikatutako jarduketa-proposamenak eta horien aplikazioa baliagarriak izan daitezten lortzea, errealitate demografikoan eta eraldaketa sistemiko baten esparruan joera-aldaketa erabilgarria, bidezkoa, inklusiboa, iraunkorra eta jasangarria egin ahal izateko.

1.2. Xedea

Erronka demografikoaren izaera sistemikoaren arabera, estrategia honen misioa *sinergia* hitzaren eta haren esanahiaren inguruan eraikitzen da: sistema baten zatiek, bakarka jardun beharrean, modu itunduan egiten dutenean lor daitekeen balio positibo erantsia. Definizio hori bat dator *auzolana* kontzeptu zaharraren egungo adierarekin: auzokide guztien artean eta zereginak partekatuz egindako lana.

Horrela, Eusko Jaurlaritzak erronka demografikoaren arloan proposatzen duen strategiak sinergia sustatu nahi du, gutxienez lau alderditatik:

- **Sinergia instituzionala.** Sailen eta erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa behar *dugu, herrialde-erronka* horren aurrean ikuspegi partekatua izateko. Erronka demografikoari erantzuteko, elkarlaneko baterako gobernantza eraginkorra behar da. Prozesu horrek zeharkako ikuspegi hori bateratzeko aukera izan behar du.

- **Sinergia soziala.** Erronka demografikoari heltzeko, kultura-aldaketako prozesu paraleloa behar da. Horregatik, erakundeen eta gizartearen arteko lankidetzeta sendoa behar da. Lankidetzeta publiko-pribatua enprekin eta lankidetzeta publiko-soziala hirugarren sektorearekin eta haren laguntza-sareekin.

- **Sinergia sektoriala.** Erronka demografikoari erantzuna ematea ez dago ekimen bakar baten mende, baizik eta jarduera sektorial multzo baten mende, jarduera horiek balio erantsia ematen baitiote elkarri batuta eta artikulatuta. Hautaketa egokia egin behar da bultzada kualitatiboa eta kuantitatiboa dakarten trakzio-indarra duten ekimenen artean.

- **Aldi baterako sinergia.** Estrategia ez dago ekintza bakar baten mende, ezta epe laburrerako jarduera-programa baten mende ere. Estrategia jasangarri eta iraunkor batek izan dezakeen eragin metagarri eta progresiboaren mende dago. Begirada luzea behar du. Hasiera batean 2030erako proiektatzen da; baina 2040ra eta 2050era ere begiratu behar du.

1.3. Helburuak

· Helburu orokorrak

- 2022-2024 aldirako jarduketa-programa garatzea, 2030erako progresibitate-ikuspegiarekin.
- Demografiaren gaia agenda politiko-instituzionalaren erdigunean jartzea eta gizartearekin partekatzea haren irismen estrategikoa.
- Euskadin familietan inbertitzera eta EBren mailako erronka demografikorako politiketara bideratutako BPGaren ehunekoa ezartzea.

· Helburu estrategikoak

- **Emantzipazioa.** Gazteen emantzipazioari laguntzeko politikak gure ingurunean emaitzarik onenak eskaintzen dituzten herrialdeen mailan kokatzea.
 - 2024rako helburua: emantzipatzeko batez besteko adina 30,2 urtetik 29 urtera jaistea.
 - 2030erako helburua: emantzipatzeko batez besteko adina 28 urtetik beherakoa izatea.
- **Jaiotza.** Familia-proiektuak eraikitzeko laguntzak eta jaiotza-tasarako laguntzak gure ingurunean emaitzarik onenak eskaintzen dituzten herrialdeen mailan kokatzea.
 - 2024rako helburua: jaiotza-tasaren beherako joera aldatzea.
 - 2030erako helburua: jaiotza-tasa %15 handitzea.

·Lehentasunezko helburuak

- Errefortzua.** Politika publikoen emaitzak eta eragina kuantitatiboki eta kualitatiboki hobetzea lehentasunezko eremu hauetan, demografia-erronkari modu sistemikoan heltzeko:
 - Landa-inguruneko despopulazioari eta zahartzeari erantzutea.
 - Migrazioa erakartzea eta txertatzea.
 - Erabateko zahartze osasungarria.

1.4. Irizpide metodologikoa (eragin bikoitzekoa)

Erronka demografikorako 2030erako Euskal Estrategiak inpaktu bikoitzeko irizpide metodologikoa hartzen du bere gain, bere jardunak helburua epe laburrean edo ibilbide luzean kokatzearen arabera egituratzeko garaian.

·Epe laburrerako eraginaren irizpidea: jarduera berriak bultzatzea

Errealitate demografikoak epe laburrerako eragina duten ekimenen programa bat eskatzen du, oso helburu zehatz eta apal batekin: datozen urteetan joera negatiboan aldaketa eragitea, bai emantzipazio-adinean, bai jaiotza-tasan. Bestela esanda, gainbehera demografikoko agertoki batetik berroneratze demografikoko agertoki batera igarotzea. Logikoaenez, epe laburrean eragina izango duten jarduera horiek berriak eta gehigarriak izango dira. Gainera, iraunkorrak eta jarraituak izan beharko dute ibilbide luzean ere.

·Ibilbide luzeko inpaktuaren irizpidea: abian dauden jarduerak indartzea

Erronka demografikoari erantzuteak belaunaldi-erreiboko ziklo baten kudeaketaz hitz egitea esan nahi du. Eraldaketa horrek aldaketa sistemikoa eta kulturala dakar, eta epe ertain eta luzera proiektatu behar da. Begirada luzea eta zabala behar du. Gutxienez 30 urteko horizonteez ari gara. Epe laburreko inpaktu-jarduerak indartu eta osatu egin behar dira ibilbide luzeko eragin iraunkor eta jarraituko ekimen-programa batekin. Batez ere, dagoeneko martxan dauden eta jarraitzen, indartzen edo sakontzen diren jarduerekin bat etorriko dira.

1.5. Jarduketa-planaren egitura

Estrategiaren ardatza erronka demografikoa da, euskal gizartea gaztetzen lagunduko duten palankak sortzen saiatuz, 2030eko hamarkadan euskal biztanleriaren egitura (piramidea) beste bat izan dadin. Horrela, proposamen honek hiru bloke handitan egituratzen du bere jarduketa-plana. Bloke horiek epe laburreko eraginaren eta ibilbide luzeko eraginaren ikuspegi bikoitza islatzen dute, eta zeharkako jardunen hirugarren ardatz bat gehitzen dute.

I. Epe laburreko eragina: jarduera berriak bultzatzea. Aztertu beharreko lehentasunezko lau proposamenetan zehazten dira, lan-hipotesi gisa:

- Seme-alabengatiko laguntzen sistema berria.
- Gazteen ekintzailatza-, prestakuntza- edo etxebizitza-proiektuetarako mailegu-programa.
- 0-2 urteko haur-eskolen doakotasuna kontziliaziorako.
- Arauak aldatzea.

II. Ibilbide luzeko inpaktua: abian dauden jarduerak indartzea. Jarduketa estrategikoko lau ardatzetan antolatzen dira:

- Gazteak emantzipatzen laguntzeko politikak.
- Familien proiektuak eraikitzen laguntzeko politikak.
- Adinekoen bizitza autonomia eta osoa sustatzeko politikak.
- Migrazioen gizarteratzea sustatzeko politikak.

III. Zeharkako ardatzak:

Osagarri gisa, jarduera-planak zeharkako euskarrien hiru ardatz gehitzen ditu:

- Landa-errebolorizazioa laguntzeko zeharkako dimentsioa.
- Komunikazio-plana erronka demografikoaren arloan.
- Aurrekontua.

E. Etapa-programa

Prozesu horren diseinuan hiru etapa hartu dira kontuan:

- **Prestakuntza**

2021eko urtarriletik 2022ko ekainera: elkarrizketa eta akordioa, estrategia eta proposamen partekatuak definitzeko.

- **Abian jartzea**

2022ko ekainetik 2024ra. Estrategiaren lehen fasea prestatzea, garatzea eta ebaluatzea.

- **Finkatzea**

2025 eta 2030 bitartean. Euskal estrategia hedatzea eta sendotzea eta aldizka ebaluatzea.

2. Jarduera-plana

LEHEN ZATIA

A. Jarduera berriak bultzatzea, epe laburrerako eragin-irizpidearekin

-**Helburua:** datozen urteetan joera negatiboan aldaketa eragitea, bai emantzipatzeko adinean, bai jaiotza-tasetan, epe ertainean beherakada demografikoko agertokitik berroneratze demografikoko agertokira igarotzea errazteko. Jarduera horien lehen helburua epe laburrerako joera-aldaketaren eragina sortzea da. Bigarren helburua da jarduera horiek iraunkorrak eta jarraituak izatea, baita ibilbide luzean ere.

Fase honetan, lau proposamen horiek lan-hipotesiak dira, eta aztertu, baloratu eta kuantifikatu egiten dira.

•I. proposamena. **Ardurapeko seme-alabengatiko laguntza-eredua birmoldatzea eta laguntzaren zenbatekoa handitzea.**

Ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko laguntza bat planteatzea, familiek 2023tik 2030era bitartean jasotzen dituzten estimuluak birmoldatzeko, bateratzeko eta areagotzeko. Une honetan, eta lehen fasean gauzatze aldera, laguntzen adina, kuantifikazioa, finantzaketa eta erregulazio-irizpideak aztertzen ari dira. Hori guztia 2023an abian jartzeko helburuarekin.

•Adierazleak eta erreferentziak

-Jarraipen-adierazleak:

- Prestazioen eta hartzaileen kopurua, urteko.
- Urteko batez besteko eta guztizko zenbatekoak.

-Ebaluazio-adierazleak:

- Helburuak:
 - 2.1etik 2.3ra + pobrezia-egoeran dauden seme-alabak dituzten familien kopurua eta ehunekoa (%20ko murrizketa).
 - Jaiotza-tasa handitzea: %10 (legegintzaldia) eta %15 (2030).
 - Ugalkortasun-tasa handitzea.
- Funtsezko faktoreak: zenbatekoa/seme-alaben kopurua ratioa.

-Erreferentziak (dokumentuak eta, hala badagokio, neurriari buruzko estekak): ez da abian den neurria.

•Arduradunak eta aurrekontua

- Sailak: Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak.
- Aurrekontua (2023): aztertzen.

•Aztertutako beste eredu batzuk

·**Suedia.** Familiei laguntzeko bi laguntza mota: (1) Seme-alabak dituzten familientzako etxebizitza-laguntza; eta (2) Haurren laguntza eta ikasleen beka. Erreferentzia gisa, bi seme-alaba dituen suediar familia batek hilean 250 euroko laguntza jaso dezake, batez beste, 20 urtez.

·**Frantzia.** 20 edo 21 urte bitarteko seme-alabak dituzten pertsonentzako familia-prestazioak, kasuen arabera. Hiru prestazio mota: (1) mantenuagatik, (2) jaiotzagatik eta lehen haurtzarorako harreragatik, eta (3) prestazio bereziak. Erreferentzia gisa, bi seme-alaba dituen Frantziako familia batek hilean 280 euroko laguntza jaso dezake batez beste, 21 urtez.

·**Italia.** Dagoeneko izapidetzen ari den lege-proiektu batean seme-alaba bakoitzeko 250 euro arteko laguntza aurreikusten du hilean, jaiotza-tasa sustatzeko.

•II. proposamena. Gazteen ekintzailtza-, prestakuntza- edo etxebizitza-proiektuetarako mailegu-programa

Interesik gabeko maileguen programa bat sortzea, epe luzera itzultzeko aukerarekin, gazteentzako ekintzailtza, prestakuntza edo etxebizitza proiektuetarako. Lehenengo 4 urteetan, programa hau irekita egongo da, partida honetarako aurreikusitako aurrekontua agortu arte. Horrek aukera emango du haren eragina ebaluatzeko eta aurrekontu-aurreikuspena urtero doitzeko, lortutako erantzunaren arabera. Une honetan, programa zer adinetan mantenduko litzatekeen, haren kuantifikazioa eta erregulazio-irizpideak aztertzen ari dira. Besteak beste, landa-ingurune edo zaugarritasun egoeretan daudenetarako ekintzailtza-, prestakuntza- edo etxebizitza-proiektuetarako itzuli beharrik gabeko dirulaguntza izan litekeen maileguaren ehunekoa balioesten ari dira.

•Adierazleak eta erreferentziak

-Jarraipen-adierazleak:

- Mailegu eta hartzaile kopurua hileko.
- Itzulketen kopurua eta hilean itzulketak egiten dituzten pertsonak.
- Mailegu eta itzulketen batez besteko eta guztizko zenbatekoak, urteka.

-Ebaluazio-adierazleak:

·Helburuak:

- 1.1etik 1.4ra: familia-etxetik irtetea, itzulerarekin edo itzulerarik gabe 10 urte igaro ondoren, eta gastu-tipologia.

-Erreferentziak (dokumentuak eta, hala badagokio, neurriari buruzko estekak): ez da abian den neurria.

•Arduradunak eta aurrekontua

-Sailak: Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak.

-Aurrekontua (2023): aztertzen.

•Aztertutako beste eredu batzuk

·**Suedia**: CSN maileguak. Estatuak honako hauek eskaintzen dizkie gazteei:

- Ikasten badute, maileguak, bekak eta alokairu merkea duten ostatuak;
- Ikasten ez badute eta langabezian badaude, gutxieneko soldata bat jasotzeko eskubidea dute, jatorrizko familiaren errenta-maila edozein dela ere.

Iturria: <https://www.csn.se/languages/espanol-spanska.html#h-Ayudaparalosestudiossubsidiosprestamosparaestudios>

•III. proposamena. 0-2 urteko haur-eskolen doakotasun unibertsala kontziliaziorako

0-2 urteko haur-eskolen doakotasuna bermatzeko beharrezkoak diren aurrekontu-baliabideak antolatzea, kontziliazioa indartzeko baldintzak errazteko eta sortzeko neurri gisa.

• Adierazleak eta erreferentziak

-Jarraipen-adierazleak:

- Haurren eskolatzeta-tasa.

-Ebaluazio-adierazleak:

·Helburuak:

- 2.1etik 2.3ra + pobrezia-egoeran dauden seme-alabak dituzten familien kopurua eta ehunekoa (%20ko murrizketa).

·Jaiotza-tasa handitzea: %10 (legegintzaldia) eta %15 (2030).

·Ugalkortasun-tasa handitzea.

·Funtsezko faktoreak:

- (Zero) hiru urtetik derrigorrezko lehen hezkuntza hasi arte dituzten haurrak, "haurtzaindegi" ofizialetan.

·Zerbitzuetara sartzeko ratioa eta arretaren intentsitatea/seme-alaba kopurua.

-Erreferentziak (dokumentuak eta, hala badagokio, neurriari buruzko estekak): konparatiboa-Autonomia Erkidegoak 2 urte. Iturria: MECD. Konparatiboa-Autonomia Erkidegoak 0-2 urte. Iturria: Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa.

•**Arduradunak eta aurrekontua**

-Sailak: Hezkuntza.

-2022-23 ikasturteko aurrekontua: aztertzen.

•**Aztertutako beste eredu batzuk**

·**Finlandia.** Hiru urtetik beherako haurrek udal haurtzaindegiko plaza baterako eskubidea dute. Diru-sarrera txikiagoak dituzten familiei ez zaie inolako tarifarik kobratzen. Familiek eskubidea dute beren seme-alabentzat eskola hasi baino urtebete lehenago eskola aurreko doako hezkuntza jasotzeko.

Udal-haurtzaindegia aukeratzeko ez bada, familiak eska dezake haurrak etxean zaintzeko subsidioa (kotihoidon tuki), zaintzarako subsidio unibertsal batez eta familiaren tamainaren eta diru-sarrera gordinen arabera arreta-osagarri batez osatutakoa.

•**IV. proposamena. Zeharkakotasun demografikoa**

Xedapen orokorrak egiteko prozedura ezartzen duen araudia aldatzea, ikuspegi demografikoa kontuan har dadin legeak, arauak, estrategiak, sektoreko jarduketa-planak edo inbertsio-programak egitean (8/2003 Legea, abenduaren 22koa. Xedapen orokorrak egiteko prozedura).

•**Adierazleak eta erreferentziak**

-Jarraipen-adierazleak:

·Arauak aldatzea.

-Ebaluazio-adierazleak:

·Helburuak:

·Ikuspegi demografikoaren integrazioa: osatzen duten arauen kopurua.

·Araudiaren eragina ebaluatzeko txostena: ikuspegi eta eragin hori txertatzearen ondorioz hartutako neurriak.

·Funtsezko faktoreak:

·Mainstreaming: gizarte- eta demografia-trantsizioa, helburu gisa, arauen eta politiken diseinuaren eta betearazpenaren parte izatea.

-Erreferentziak (dokumentuak eta, hala badagokio, neurriari buruzko estekak): konparatiboa-Autonomia Erkidegoak 2 urte. Iturria: MECD. Konparatiboa-Autonomia Erkidegoak 0-2 urte. Iturria: Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa.

•**Arduradunak eta aurrekontua**

-Sailak: Gobernantza Publikoa eta Autogobernua.

-Aurrekontua: ez du eraginik aurrekontuan.

BIGARREN ZATIA

B. Ibilbide luzeko inpaktu-irizpidearekin abian dauden jarduketak indartzea

B.1. I. ardatza, jarduketa estrategikoari buruzkoa: **gazteen emantzipazioa**

·Jarduketa-ardatzaren deskribapen sintetikoa

·Ekimen zehatzak definitu eta garatzea, belaunaldien arteko arrakalak murrizteko, emantzipatzeko adina aurreratzea bultzatzeko eta egungo gazteen belaunaldiaren eta aurreko aldietakoen arteko desberdintasuna konpentsatzeko.

·Lan-hipotesiak

Erronka demografikoari erantzuteko, lehenengo etapan, 26 eta 31 urte bitarteko gazteek honako hauek izan behar dituzte:

-Likidezia handiagoa izatea, emantzipazioaren arloan urrats eraginkor bat emateko.

-Enplegua eta etxebizitza eskuratzea, bereziki alokairu-erregimenean, beren diru-sarreretara egokitutako kostu batean.

-Emantzipazio-ibilbideak garatzeko informazio eta orientazio pertsonalizatu eta espezializatua jasotzeko aukera izatea.

·2030erako helburua

·Gazteen emantzipazio-adina 28 urtetik beherakoa izatea, gazteen emantzipaziorako euskal strategiaren arabera.

·Helburu horri laguntzeko politikak emaitza onenak dituzten herrialdeen mailan kokatzea. Erreferentzia-ereduak: Finlandia, Suedia edo Frantzia.

·Legegintzaldiaren helburua

·Emantzipatzeko batez besteko adina murriztea, 30,2 urtetik 29 urtera.

·Estrategia aktibo eta ezagun bat hedatzea politika eta neurri espezifiko argiekin, gazteei emantzipatzen eta enplegua eta etxebizitza lortzen laguntzeko.

·Etxebizitzarako eskubide subjektiboa erregelamendu bidez garatzea, EPOTik etxebizitzarako prestazio ekonomikorako trantsizio ordenatua bermatuz, eta Etxebizitzaren aldeko Itun Sozial bat, 2021-2023 Etxebizitza Bideratzeko Plana eta gazteentzako etxebizitza-programa berezi bat bultzatzea, horietan guztietan gazteen emantzipazioa helburu gisa sartuz eta neurri espezifikoak aurreikusiz.

·Enplegu-politika aktiboak ebaluatzea gazteen emantzipazioaren ikuspegitik, eta ikuspegi hori sartzeko euskal enpleguari buruzko legean, emantzipaziorako neurri espezifikoak txertatuz, gazteei enplegua lortzen laguntzera bideratutako beste neurri orokor batzuekin batera (gazteen bermea).

·Gazteentzako politika sektorialak bultzatzea, haien parte-hartzearekin, eta, bereziki, Gazteria Zuzendaritzak GazteBizHitza 2.0 (GAZ) abiaraztea, haien bizi-proiektuak babesteko tresna aurreratu gisa, laguntza ekonomikoen kudeaketa barne, hala badagokio.

·Emantzipazio-adina atzeratzeko joeraren aurka egitea, besteak beste eta oraindik zehazteke dagoen intentsitatearekin, COVID-19ren krisiaren eraginak indartu egiten baitut joera hori.

·Aztertzen ari diren proposamenak

·Etxebizitzarako eta enplegurako sarbidea hobetzeko helburuarekin, emantzipazio-adina aurreratzeko funtsezko faktore gisa:

•1. proposamena

-**Gazteentzako etxebizitzarako gastu publikoa handitzea**, bai eta horren onuradunak diren 26 eta 31 (34) urte bitarteko pertsonen ehunekoa ere¹.

-**Emantzipazioa errazten duten ekimenen ezagutza sustatzea** (prestazioak eta laguntzak, hezkuntza, etxebizitza, enplegua...), kanpaina, sare, azoka eta abarren bidez, sail edo erakunde bakoitzetik eta GAZ eta Ameslariak programetatik (GazteBizHitza 2.0), bai eta lurralde historiko bakoitzeko baliabide eta sareetatik ere.

-**Gazteentzako enplegua sortzea, hutsik dauden etxebizitzak birgaitzeko** programak eta birgaitzera bideratutako lanbide-heziketa duala bultzatuz.

·Adierazleak eta erreferentziak

-Jarraipen-adierazleak:

·Programak hobetzea.

·Adin-tarteetako egokitzapenak.

·Planen eta programen helburuei egokitutako aurrekontu-zuzkidurak.

·Gazteentzat erakarrirako etxebizitzetan erreserbak ezartzea, **26 eta 31 urte** bitartean.

·Babes publikoko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak: 4.800 (legegintzaldia) eta 11.000 (2030).

·Jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzea: 1.600 (legegintzaldia) eta 4.000 (2030).

·Eraikinak birgaitzea: 20.000 (legegintzaldia) eta 45.000 (2030).

-Ebaluazio-adierazleak:

·Helburuak: 1.1etik 1.4ra.

·Funtsezko faktoreak: 2.1etik 2.3ra.

·Gazteentzako etxebizitzaren arloko gastu publikoa.

·Gazte onuradunen kopurua, adinaren, sexuaren eta urtearen arabera.

-Erreferentziak (dokumentuak eta, hala badagokio, neurriari buruzko estekak):

<https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovhome/eu/>

<https://www.irekia.euskadi.eus/eu/>

·Etxebizitzaren Plan Zuzentzailea. Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala.

·Arduradunak eta aurrekontua

-Saila: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.

-Aurrekontua (2022): 500 milioi euro + Next Euskadi funtsak (kuantifikatu gabe).

¹Honako neurri-multzo hau proposatzen da:

- Gaztelagun programa eguneratzea: zenbatekoa handitzea eta eskakizunak malgutzea, arreta berezia jarriz 26 eta 31 urte bitarteko gazteei.

- Arrazoizko alokairuen dekretu bat aldarrikatzea eta alokairuko etxebizitzaren parke publikoa bultzatzen jarraitzea, alokairuko etxebizitza babestuen lehentasuneko erreserba ezarriaz 23 eta 36 urte bitarteko gazteentzat.

- Foru-aldundiekin eta udalekin lankidetzan, zerga-neurriak artikulatzea, Zerga Koordinaziorako Organoan aztertu ondoren, hutsik dagoen parkea murrizteko eta gazteei eta seme-alabak dituzten familiei nolabaiteko prezio-tarte batean alokatzen dieten jabeen parke hori alokairuan jartzea sustatzeko.

- Zuzkidura-bizitokiak sustatzea aldi baterako etxebizitzaren arau- eta kontzeptu-berrikuspenaren esparruan, 26 eta 31 urte bitarteko gazteentzat eta hirugarren adinekoentzat (III. ardatza), eta lokal eta lonja hutsak etxebizitza bihurtzeko planak eta programak bultzatzea, udalekin batera, gazteentzako kupoak ezarriaz.

- Hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzea eta 23 eta 31 urte bitarteko gazteentzat kupoak ezartzea.

- Hiri-irrigarritasuneko eta -berronertzeko programak garatzea, hiri-ingurune bizigarriagoak, hiri-plangintzako tresnen bidez, 23 eta 36 urte bitarteko gazteentzako zuzkidura-bizitokitarako eremuak ezarriaz.

- Gazteek etxebizitza eskuratzeko aukera berritzaileak izan ditzaten sustatzea (cohousing-a, erosteko aukera ematen duen alokairua, etxebizitza partekatua edo aztertzen ari diren beste batzuk plan zuzentzailearen esparruan), eta eraikin eta auzoetan, ekimen pribatuarekin eta udalekin belaunaldien arteko bizikidetzaren formulak sustatzea.

•Aztertutako beste eredu batzuk

- Finlandia.** Etxebizitza ordaintzeko laguntzei dagokienez, BPGaren %0,35 gazteen %37,6k jasotzen du.
- Suedia.** Etxebizitza kooperatiboari laguntzea, parke osoaren %22. Alokairua finkatzeko urteko hitzarmen-sistema.
- Frantzia.** Alokairu sozialaren aldeko apustu sendoa, parke osoaren %17 (2011), eta hirurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik etxebizitzako gastu publikoari eustea.

•2. proposamena

-**Gazteen enplegurako txoke-plan bat bultzatzea,** Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren Esparru Programaren barruan, jarduera-ardatz hauekin: gazteen enplegurako prestakuntza duala; hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa; prestakuntza-bekak eta lanbide-esperientzia, kontratatze konpromisoarekin; gazteen laneratzeko eta enplegurako programa espezifikoak; ekintzaitzaren, autoenpleguaren eta startup gazteen garapena; tokiko eta eskualdeko enplegu-plan eta -programak; bereziki gazteen enplegu-eskaintza eta enplegu-eskaintza kolektiboa murriztea².

-Gazteak kontratatze pizgarri fiskalak garatzea, Zerga Koordinaziorako Organoak aztertu ondoren.

•Adierazleak eta erreferentziak

-Jarraipen-adierazleak:

- 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategian aipatutako jarduerak gauzatzea.
- 26 eta 34 urte bitarteko zenbat gaztek parte hartzen duten programa bakoitzean eta lanpostura egokitutako kontratazioa eta prestakuntza sustatzeko berariazko tresnetan.
- Programa bakoitzean parte hartzen duten eta programan zehar edo ondoren emantzipatuta dauden edo emantzipatzen diren gazteen ehunekoa.

-Ebaluazio-adierazleak:

- Helburuak: 1.1etik 1.4ra.
- Funtsezko faktoreak: 1.1etik 1.7ra.

-Erreferentziak (dokumentuak eta, hala badagokio, neurriari buruzko estekak):

- 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategia.

²Honako neurri-multzo hau proposatzen da:

- Enpresa arruntean kontrataziorako (mugagabea, lanaldi osokoa) eta lanpostura egokitutako prestakuntzarako pizgarrien berariazko tresnak sustatzea, eta ordaindutako prestakuntza-praktiken programak abian jartzea, enpresan mentoring figura eta berariazko prestakuntza sustatuz.
- Enplegu-nitxo berrietan trebatzeko eta kalitatezko enplegua sortzeko plan bat sustatzea 3 trantsizioetan (digitalizazioa-automatizazioa, ekologikoa eta soziosanitarioa), gazteen ekintzaitzeta sustatzeko eta laguntzeko programak barne, eta sektore publikoak eskatzen dituen eta NEXT Generationi lotuta dauden enpleguetan trebatzeko plan bat gauzatzea.
- Gazteak trebatzea merkatuak eskatzen dituen zeharkako gaitasunetan eta, bereziki, hizkuntza-gaitasunetan eta gaitasun digitaletan.
- Gazteentzako berme-programen, tokiko edo eskualdeko enplegu-planen eta abarren ondorengo laneratzeko-ibilbideak optimizatzea, horiek ebaluatu ondoren.
- Esperientzia duten gazteen kontratazioa bultzatzea eta enplegua duten gazteak gaitzeko eta birziklatzeko planak garatzea, haien lanbide-proiektzioa finkatzeko eta hobetzeko.
- Gazteei eta enpresei zuzendutako jarduera eta ekimen berritzaileak garatzea, belaunaldi-erlebooa ahalbidetzeko.
- Ekintzaitzeta sustatzea.
- Gazteei zuzendutako politika aktiboetako ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak bultzatzea.
- Enplegua lortzeko elkarri lotutako bi ekosistema garatzea (Lanbide. Lan Aktibazioko Zuzendaritza) eta emantzipazioari laguntzea (Gazteria Zuzendaritza), Euskadin kokatu nahi duten edo bizi diren 20 eta 40 urte bitarteko pertsonentzat eta familientzat (ekimenak dimentsio globala eta tokikoa du).
- Gazteria Zuzendaritzarekin eta Migrazio eta Asilo Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea erakartzeko, itzultzeko eta konektatzeko ekimenetan, enplegua lortzearen ikuspegitik, euskal enpresekin eta beste eragile batzuekin batera (ikus 5. proposamena).
- Enplegua lortzeko eta mantentzeko laguntza-zerbitzu pertsonalizatuak hobetzea, gazteei eta lan-merkatuak eskatzen dituen profilei egokituta, Lanbide hobetzen programaren bidez.
- Pandemiaren eraginpeko sektoreetan eta pandemian zehar familiaren etxera itzuli diren gazteen susperraldi eta berrakibazio ekonomikoan birkokatze eta birkualifikatzeko planak sustatzea.

-Lotutako programak (BFA):

- Gazteen enplegurako txoke-plana.
- Gazteak kontratatzeke zerga-pizgarriak.
- Udal Gaztedi eskualde-hitzarmenak arreta berezia jarrita emantzipazioari, enpleguko eta ekintzailtzako programa espezifikoeekin.
- Laneako ez diren praktiken programak, eskualdeko hitzarmenen esparruan. Arrakastakasua, enplegarritasun-tasa %40tik gorakoa izanik.
- Ekintzailtza sustatzea: ekin eta egin; ideia lehiaketak; berrikuntza irekiko prozesuak.

•**Arduradunak eta aurrekontua**

- Saila: Lana eta Enplegua.
- Aurrekontua (2023): oraindik ez dago aurreikuspenik

•**Aztertutako beste eredu batzuk**

·**Irlanda.** Ekintzailtza sustatzea. Ekintzailtzako 31 toki-bulego jarri dira martxan gazteentzat; enpresa-ekimen berrien gaineko fiskalitatea berrikusi da, eta bi milioi euroko funtsa jarri da ekimen horiek zati batean finantzatzeko.

(*) **Europako iparraldeko herrialdeetako arrakasta-faktoreak gazteen langabeziari aurre egiteko:** hezkuntza-sistema norbanakoen premietara egokitzea; ikasleen banakako jarraipen handiagoa eta eraginkorragoa egitea; hezkuntzako gastu publikoa handitzea krisialdian; gazteak kontratatzeke zerga-pizgarriak ezartzea; enplegu-zerbitzu publikoen eta lan-eskaintzaren arteko koordinazioa hobetzea; gazteek lan-arloan duten motibazioa hobetzea; bigarren hezkuntzako maila areagotzea; hezkuntza sistemaren eta lan munduaren arteko loturak areagotzea.

•**3. proposamena**

-**GAZ eta Ameslariak programak.** Gazte guztiei **beren emantzipazio-ibilbideetan eta bizi-proiektuetan laguntza pertsonalizatua** bermatzea, gazteen mugikortasuna eta migrazio-prozesuak barne (20 eta 40 urte bitarteko pertsona, bikote eta familia gazteak erakartzea, itzultzea eta konektatzea).

Era berean, gazteek parte hartzeko espazioak sortuko dira (panelak, tailerrak) askotariko bizi-proiektuei eta emantzipazio-ibilbideei laguntzeko diseinuan (baterako diseinua) eta informazio- eta orientazio-prestazioetan.

Eta emantzipazioaren inguruko zerbitzua zabaltzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak bultzatuko dira, kultura eta ibilbideak edo emantzipazio-prozesuak eta -praktikak azpimarratuz.

Bi programak berariaz gazteen emantzipazioa eta mugikortasuna sustatzera bideratutako foru- eta toki-ekimenekin artikulatuko dira, bai eta talentua erakartzeko eta itzultzeko ekimenekin eta gazte-informazioko sareekin eta baliabideekin ere.

•**Adierazleak eta erreferentziak**

-Jarraipen-adierazleak:

- GAZ (GazteBizHitza 2.0) eta Ameslariak diseinatzea eta abian jartzea, gazteen emantzipazio-prozesuei laguntzeko zerbitzuan eta beste zerbitzu osagarri batzuetan hobekuntzak artikulatuz (gazteentzako informazio- eta orientazio-zerbitzuen sarea eta emantzipaziora bideratutako sustapen-zerbitzuak).
- Emantzipazioari laguntzeko tresna digital bat abian jartzea (ekosistema birtuala).
- Zenbat gaztek erabiltzen dituzten zerbitzua, prestazio bakoitza (informazioa, orientazioa, laguntza, gaikuntza, bitartekaritza...) eta tresna digitala.
- Baterako diseinuko ekintzetan parte hartzen duten gazteen kopurua.
- Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden gazteen egoerara egokitutako ekimenak edo berariazkoak garatzea (ikus 18. proposamena).

-Ebaluazio-adierazleak:

- Helburuak: 1.1etik 1.4ra

- Funtsezko faktoreak: estrategiaren ekimenak ezagutzen dituzten gazteen kopurua eta ehunekoa. Aurrera Begira-k jasotzen dituen adierazleak hobetzea (globala).
- Erreferentziak (dokumentuak eta, hala badagokio, neurriari buruzko estekak):
 - Gaur egungo zerbitzua: <https://www.gazteaukera.euskadi.eus//gbizhitza/hasiera/> /
 - Aurrera Begira: https://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovj_investigaciones_publicacio/eu_def/adjuntos/aurrera_begira_2020_e.pdf
 - Erlazionatutako programak
 - [TREBA Gazteak programa.](#)
 - [Elkar-Ekin Lanean](#)
 - [Bizkaia Talent](#)
 - [Gipuzkoa Talent](#)

·**Arduradunak eta aurrekontua**

-Sailak: Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak, Gazteria Zuzendaritzaren eta Familia eta Haurtzaro Zuzendaritzaren eta Migrazioko eta Asiloko Zuzendaritzen arteko ekintza artikulatuz (harrerako euskal eredu).

Programa jarduera-sektoreak (enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza...) ardatz hartzen dituzten sailekin lankidetzan garatuko da,

Erakartzeko, itzultzeko eta konektatzeko programa garatzeko, Gazteria Zuzendaritza lankidetzan arituko da Lanbideko Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzarekin, enpleguaren eta enprekin egindako lanaren esparruari dagokionez.

-Aurrekontua (2023): oraindik ez dago zerbitzu berrirako aurreikuspenik. 800.000-1.000.000 euro kalkulatu dira.

·**Aztertutako beste eredu batzuk**

·**Galizia.** Itzultzeko programa. Galiziako bultzada demografikoari buruzko 5/2021 Legeak atzerrian bizi diren biztanleen itzulera sustatzen du, eta biztanle berriak erakartzea aurreikusten du, lan-merkatuaren eskariekin bat etorriz, Galizian bizi diren pertsona berrien integrazioa erraztuko duten harrera-programekin batera. Itzulera aholkatzeko Bulego Integrala sortzea aurreikusi da.

B.2. II. ardatza, jarduketa estrategikoari buruzkoa: **Familia-proiektuak eraikitzea**

·Jarduketa-ardatzaren deskribapen sintetikoa

·Politika zehatzak ezartzea eta garatzea, familia bakoitzak nahi adina seme-alaba izan ditzan, haurren pobrezia prebenitzeko eta baldintza-defizitak ez dezan lehenengo amatasunaren atzerapena behartu.

·Lan-hipotesiak

·Erronka demografikoari erantzuteko, beharrezkoa da, bigarren etapa batean, 31 eta 40 urte bitarteko gazteek, edo, hala badagokio, aurrekoek, iraunkortasun ekonomikoko ikuspegia izatea, beren familia-proiektuan aurrera egiteko, hala nahi badute.

Ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko prestazio ekonomiko bat izatea, zenbateko handi batekin eta denboran zehar eutsita; lau sektoreek kontziliazio erantzukiderako baimenak eta neurriak bultzatzearekin batera; eta gizarte-, osasun- eta hezkuntza-laguntzako sare bat eratzea eta arian-arian garatzea 0-6 urteko adinetik aurrera, familia- edo komunitate-laguntzako sarerik ez duten familia kalteberei ere zabal daitekeena. Horra hor, seme-alaben lehen urteetako laguntza-estrategia baten hiru oinarri.

·2030erako helburua

·%15 handitzea jaiotza-tasa, Gobernu Programako 2024rako %10 handitzeko herri-helburuarekin bat etorritik, eta.

·Gure inguruan emaitzarik onenak dituzten herrialdeen mailan kokatzea familia-proiektuak eraikitze laguntzak eta jaiotza-tasarako laguntzak. Erreferentzia-ereduak: Suedia eta Frantzia.

·Seme-alabak dituzten familien pobrezia-tasa %20 murriztea.

·Legegintzaldiaren helburua

·Indargabetu lehen amatasuna atzeratzeko joera, Covid-aren eraginak nabarmentzen duena, eta baldintza-defizitak hura ez behartzen laguntzea, jaiotza-tasa %10 handituz gobernu-programan aurreikusitakoaren ildotik.

·Estrategia aktibo eta ezagun bat izatea, ardatz eta laguntza argiak dituena, familia bakoitzak nahi adina seme-alaba izan ditzan eta baldintza-gabeziagatik murriztu ez dadin kopuru hori.

·Kontziliazioaren eztabaida elkarriketa sozialean sartzea, enpresekin eta sindikatuarekin, eta erantzunkidetasuna bultzatzen jarraitzea, hau da, gizonak zaintza-lanetan inplikatzeko, kontziliazioaren funtsezko elementu gisa, genero-joera saihesteko; horrela, emakumeek kontziliazio-neurriak gehiago erabiltzeko gaur egungo joera aldatu ahal izango da.

·Aztertu beharreko proposamenak

·Familia-proiektuak eraikitzen laguntzeko helburuarekin:

•4. proposamena

-Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzen **azterketa kualitatiboa** egitea.

-**Kontziliazio erantzukiderako** neurriak bultzatu eta aldatzea, lau sektoreen arteko lankidetzatik (publikoa, pribatua, soziala eta familia- eta komunitate-arlokoa), honako hauek sustatuz:

·Kontzilia Erkidegoa eta enpresetan ezarri beharreko kontziliazio-neurriei buruzko txosten bat egitea.

·Kontziliazio erantzukideko planak enpresetan, entitateetan eta erakundeetan.

·Jaiotzagatiko 18 asteko baimen berdinarak eta besterenezinak arian-arian zabaltzea eremu pribatura.

·Eta eszedentziarako laguntza 10 astera zabaltzea (gaur egun, 8 aste) guraso bakarreko familiei semearen edo alabaren bizitzako lehen urtean.

·Diru-laguntzen ezagutza eta erabilera: a) 0 eta 14 urte bitarteko seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko; b) seme-alabak eta mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larriarri dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten pertsonentzat.

·Zaintza eta kontziliazio erantzukidea, eta gurasotasun positiboko programak.

-Azterketa kualitatibo bat egitea, gazteak seme-alabak izateko motibazioan edo motibazio falta eragiten duten arrazoiak/faktore sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta abar identifikatzen laguntzeko.

·Adierazleak eta erreferentziak

-Jarraipen-adierazleak:

·Neurri bakoitza garatzea eta aurrekontua gauzatzea.

·Kontziliazio Komunitatean eta kontziliazio-planetan parte hartzen dutenen kopurua pixkanaka handitzea.

·Baimenen eta eszedentzien iraupena pixkanaka handitzea, aipatutako estandarretara iritsi arte.

-Ebaluazio-adierazleak:

·Helburuak: 2.1etik 2.3ra.

·Funtsezko faktoreak:

·Kontziliazio erantzukideko planak edo neurriak dituzten enpresen, entitateen edo erakundeen kopurua.

·Baimenak eta laguntzak jaso dituzten pertsonen kopurua, sexuaren arabera.

·Senitartekoak zaintzeko lanetan parte hartzen duten gizonen kopurua eta ehunekoa (zaintzaren intentsitatea)

-Erreferentziak (dokumentuak eta, hala badagokio, neurriari buruzko estekak):

<https://www.euskadi.eus/web01-a1kontzi/eu/>

<https://www.euskadi.eus/informazioa/lana-eta-familia-bateragarri-egiteko-laguntzak/web01-a2famil/eu/>

Lotutako programak

TREBA Gurasoak programa (gurasotasun positiboa):

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/-/aldundiak-treba-gurasoak-katalogoa-aurkeztu-du>

Erantzunkide Sarea, berdintasuna eta kontziliazio erantzunkidea sustatzen duten enpresak (Gipuzkoa):

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/-/abian-da-erantzunkide-sarea>

·Arduradunak eta aurrekontua

-Sailak: Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak, Lan eta Enplegu Sailarekin lankidetzan.

-Aurrekontua (2023): oraindik ez dago aurreikuspenik.

·Aztertutako beste eredu batzuk

·**Suedia.** Lana eta familia bateragarri egiteko guraso-prestazioa, Suediako Gizarte Segurantzako Agentziarena.

Semearekin edo alabarekin etxean egoteko amak edo aitak jasotzen duen laguntza ekonomikoa. Baimena 480 egunekoa da (16 hilabete) bikote bakoitzeko, eta ez da iraungitzen haurrak 8 urte izan arte.

Guraso-ahalaren titular bakoitzak gutxienez 90 egun hartu behar ditu, eta ezin dira transferitu.

Baimenean zehar jasotako diru-kopurua soldataren %80 da, azken 90 egunetan izan ezik, kasu horretan tarifa finkoa kobratzen baita.

•5. proposamena

-0-6 urteko seme-alabak dituzten familiei laguntzeko tokiko ekosistemak arian-arian garatzea, lidergo publikotik eta hiru sistemen eta lau sektoreen lankidetzatik abiatuta, gizarte-, hezkuntza- eta osasun-laguntzak egituratu eta hobetzeko.

•Adierazleak eta erreferentziak

-Jarraipen-adierazleak:

·Ereduaren diseinua.

·Esperientzia pilotuak abian jartzea, ebaluatzea eta eskalatzea.

-Ebaluazio-adierazleak:

·Helburuak:

·2.1etik 2.3ra + pobrezia-egoeran dauden seme-alabak dituzten familien kopurua eta ehunekoa (%20ko murrizketa).

·Jaiotza-tasa handitzea: %10 (legegintzaldia) eta %15 (2030).

·Ugalkortasun-tasa handitzea.

·Funtsezko faktoreak: zerbitzuetarako sarbidearen ratioa eta arretaren intentsitatea/seme-alaben kopurua.

-Erreferentziak (dokumentuak eta, hala badagokio, neurriari buruzko estekak): ez da abian den neurria.

•Arduradunak eta aurrekontua

-Sailak: Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak, Hezkuntza eta Osasunarekin batera.

-Aurrekontua (2023): oraindik ez dago aurreikuspenik.

•Haurren pobrezia desagerrarazteko helburuarekin:

•6. proposamena

-Haurren bermerako estrategia edo programa bat diseinatzea eta abian jartzea, aukera berdintasuna sustatzeko pobrezia eta gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden 18 urtetik beherako haur eta nerabeen artean, hezkuntza-, gizarte-, osasun-, eta etxebizitza zerbitzuetarako benetako eta doako sarbidea bermatuz, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta indartuz, ardurapean seme-alabak dituzten familien babesak hobetzeko.

Estrategia edo programa hori honela diseinatuko litzateke:

·Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunari buruzko 2020ko Inkestako datuak kontuan hartuta, arreta berezia jarriz babesik gabeko, zaurgarritasun bereziko eta bereizkeria anitzeko egoeretan.

·Eta gobernu-programan aurreikusitakoaren arabera, *Haurren Eskubideei buruzko Europako Estrategian*, 2021eko martxoaren 24an Batzordeak onartutakoan, eta *Europako Haurren Bermeari* buruzko Kontseiluaren gomendio-proposamenean, baita *2030 Agendan ere*.

DSBEren erreformari dagokionez, egokia dirudi honako hau kontuan hartzea: ardurapean seme-alabak dituzten pertsonen zenbatekoak handitzea eta bizikidetzaren mugatu bakoitzeko kide konputagarrien gehieneko muga ezabatzea egungo legean, muga horrek familia ugarietan, guraso bakarreko familietan, desgaitasuna duten seme-alabak dituzten familietan eta abarretan duen eragina kontuan hartu ondoren.

•Adierazleak eta erreferentziak

-Jarraipen-adierazleak:

·Estrategiaren edo programaren jarduerak hedatzea eta aurrekontua gauzatzea.

-Ebaluazio-adierazleak:

·Pobrezia-egoeran dauden seme-alabak dituzten familien kopurua eta ehunekoa (%20ko murrizketa).

·Haurren bermeari osagai bakoitzari lotutako neurriez baliatzen diren haur, nerabe eta familien kopurua eta ehunekoa, zerbitzu edo laguntza ekonomikoaren bidez.

-Erreferentziak (dokumentuak eta, hala badagokio, neurriari buruzko estekak):

[https://ec.europa.eu/social/main.jsp? CatId = 89 & furtherNews = yes & newsId = 9968 & langId = en](https://ec.europa.eu/social/main.jsp?CatId=89&furtherNews=yes&newsId=9968&langId=en)

• **Arduradunak eta aurrekontua**

-Sailak: Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak, beste sail batzuekin lankidetzan, bereziki Hezkuntza, Osasuna, Lana eta Enplegua eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa.

-DSBEaren erreforma: Lan eta Enplegu Saila.

-Aurrekontua (2023): oraindik ez dago aurreikuspenik.

• **Aztertutako beste eredu batzuk**

· **Suedia.** Haurren sorospena.

· **Frantzia.** Seme-alabengatiko laguntza-programa. (Ikus I. proposamena).

B.3. III. ardatza, lehenasunezko jarduketari buruzkoa: adineko pertsonen bizitza autonomia eta osoa bizi-zikloan zehar sustatzea, gizarte- eta osasun-zaintzak bermatuta.

·Jarduketa-ardatzaren deskribapen sintetikoa

·Adineko pertsona guztien autonomia eta bizitza betea sustatzeko jardun-ildo bultzatzaile bat zehaztea eta garatzea, zahartze aktibo eta osasungarriko politikak eta adinekoen partaidetza, talentua eta gizarte-ekarpena sustatuz. Hori guztia, Zahartze Osasuntsuaren Hamarkadaren esparruan, OMEk sustatuta eta Europako Batzordearen *Zahartzeari buruzko Liburu Berdearen* arabera.

·Lan-hipotesia

·*Zahartzeari buruzko Liburu Berdearen* tesia onartzea: “*Aurreko belaunaldiek baino urte gehiago eta osasun-egoera hobean bizitzea merkatuko ekonomia sozialaren arrakastaren eta indarraren seinale da. Hala ere, fenomeno horrek erronka berriak ere mahaigaineratzen ditu eta aztertu beharreko aukerak eskaintzen ditu. Eztabaida bat egin behar da zahartzen ari den biztanleriaren potentzial osoa aprobetxatzeko moduari buruz, aurkezten duen berrikuntzarako pizgarriei buruz eta eskatzen dituen erantzun politikoei buruz*”. Dubravka Šuica, Europako Batzordeko Demokrazia eta Demografiako lehendakariordea.

·2030erako helburua

·Zahartze aktibo eta osasungarriari bultzada estrategikoa ematea eta adinekoen autonomia pertsonala, parte-hartze soziala eta bizitza betea sustatzea.

·86 urtera arte luzatzea bizi-itxaropena, baita bizi-itxaropen osasungarria edo desgaitasunik gabekoa ere.

·Helburu horri laguntzeko politikak emaitza onenak eskaintzen dituzten herrialdeen mailan kokatzea. Erreferentzia: zahartze aktiboaren indize europarra.

·Arreta soziosanitarioko eredu integral berri bat bultzatzea eta tokiko zaintza-, gizarte- eta osasun-ekosistemak sustatzea, bereziki lehen mailako arreta eta prebentzio soziosanitarioa indartuz, Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategiarekin bat etorriz.

·Legegintzaldiaren helburua

·Adinekoekin estrategia integral bat sustatzea, adinekoen belaunaldien autonomia, bizitza betea eta parte-hartze soziala sustatzeko, bai eta hauskortasun- eta mendekotasun-egoerei arreta eskaintzeko ere.

"Euskadi Langunkoia Sustraietatik" sustatzen jarraitzea, tokiko mailan adinekoekin eta adinekoentzat politikak garatzeko funtsezko tresna gisa.

Nagusi Agenda bultzatzea, adinekoekiko Gobernantzaren Euskal Estrategiaren esparruan, baita Euskadiko Adinekoen Batzordea ere, adinekoen erakunde eta sareekiko elkarriketa zibilaren adierazpen gisa, Eusko Jaurlaritzaren eskumen-eremuan.

·85 urtera arteko bizi-itxaropena handitzea.

·Zaintzaren aldeko itun soziala eta zaintzaileen estatutua bultzatzea.

·Aztertu beharreko proposamenak

·Gizarte-kohesioa, belaunaldien arteko elkartasuna eta adinekoen eta gazteen bizi-proiektuak sustatzeko helburuarekin:

•7. proposamena

-Belaunaldien arteko errelebo-zikloa kudeatzeko estrategia diseinatzea eta abian jartzea hirugarren sektoreko erakunde, enpresa eta antolakundeetan.

·Adierazleak eta erreferentziak

-Jarraipen-adierazleak:

·Bi urtean behingo estrategia eta ebaluazioa diseinatzea eta abian jartzea.

·Belaunaldi-erreleboko plan bat diseinatzea eta abian jartzea Eusko Jaurlaritzan.

·Belaunaldi-erleboako planak dituzten erakunde, enpresa eta antolakundearen kopurua, baldin eta, gutxienez, erreleboa sistematikoki planifikatzeko, erakartzeko/biltzeko, sartzeko eta irteteko ekintzak biltzen badituzte.

·Belaunaldi-erreleboaren kudeaketa orokorra:

·Enpresetako errelebo-beharrak identifikatzea (profilen arabera kuantifikazioa), erakartzea eta gaitzea.

·Erretiroa hartzeko adinetik hurbil dauden pertsonen gaitasunak, nahiak, eskaerak eta beharrak identifikatzea eta alternatibak garatzea.

-Ebaluazio-adierazleak:

·Belaunaldi-erreleboa: erretiroa hartzean ordezkaturako langileen kopurua eta ordeztasuna erretiratutako pertsona guztiekiko.

-Erreferentziak (dokumentuak eta, hala badagokio, neurriari buruzko estekak): ez da abian den neurria.

Arduradunak eta aurrekontua

-Sailak: Lehendakaritza; Gobernantza Publikoa eta Autogobernua; Lana eta Enplegua; Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak.

-Aurrekontua (2023): oraindik ez dago aurreikuspenik.

·Bizitza betea eta zahartze aktiboa sustatzeko helburuarekin (zahartze aktiboaren Europako indizea):

•8. proposamena

-**Adinekoekin Euskal Estrategia** sustatzea, zahartze aktiboa **bizitza betearen ikuspegitik** txertatuz eta adineko autonomoak nahiz autonomiarako laguntza (zaintza) gero eta handiagoak behar dituztenak kontuan hartuz.

Eta **Euskadi Lagunkoia Sustraitetik** indartzen jarraitzea, estrategia tokiko planoarekin lotzeko eta adinekoekin hiri lagunkoia sustatzeko tresna gisa.

Nahi ez den bakardadearen aurkako estrategia instituzionalak sustatzea.

-**Belaunaldien arteko ekimenak eta proiektuak** bultzatzea.

·Adierazleak eta erreferentziak

-Jarraipen-adierazleak:

·Adinekoekin Euskal Estrategiaren aurrekontua diseinatzea eta gauzatzea.

·Euskadiko Lagunkoia Sustraitetik parte hartu duten udalari, ekimen, erakunde eta pertsona kopurua:

·Euskadi lagunkoia Sustraitetik elkartean, foro eta ekimenetan parte hartuz, sartutako erakunde sanitarioen kopurua, jarduteko aukera berriak diseinatzeko aliantzak sortzeko.

·Bakardadeari aurre egiteko estrategia instituzional lerrotuaren garapena eta ebaluazioa: Araba a Punto, Hariak...

·Bakardade-egoerak hautemateko eta lehen aldiz tratatzeko sistemak garatzea.

Belaunaldien arteko proiektuen edo ekimenen kopurua eta tipologia, eta horietan parte hartzen duten 65 urtetik gorako eta beste adin-tarte batzuetako pertsonen kopurua.

-Ebaluazio-adierazleak:

·Helburuak: 3.1etik 3.4ra.

·Funtsezko faktoreak: 3.1etik 3.6ra.

-Erreferentziak (dokumentuak eta, hala badagokio, neurriari buruzko estekak):

·<https://www.euskadilagunkoia.net/eu>

·[Euskadi lagunkoia sustraitetik](#)

·[Araba prest](#): nahi ez den bakardadeari aurre egiteko estrategia (AFA).

·[Hariak](#). Nahi ez diren bakardade-egoerak prebenitzera, antzematera eta artatzera eta adinekoen parte-hartze soziala sustatzera bideratutako ekintza-plana (GFA/Adinberri).

- Getxoko belaunaldiarteko zentroa (BFA).
- "Gipuzkoa Intergenerazionala": belaunaldien arteko trukerako, esperimentaziorako eta lankidetzarako guneen sarea, adinekoek gizartean parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzeko. (GFA/Adinberri).
- Hiritik at: Donostian belaunaldi arteko bizikidetzak-eredu berriak egiteko partaidetza-prozesua.

•Arduradunak eta aurrekontua

- Sailak: Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak, Osasunarekin lankidetzan.
- Aurrekontua (2023): 370.000 euro.

•Aztertutako beste eredu batzuk

- EB.** Zahartze aktiboaren Europako indizea (<https://statswiki.unece.org/display/AAl/Active+Ageing+Index+Home>).
- Brusela.** Service de Seniors zerbitzu publikoaren bitartez, arrakastaz garatu ditu gazteen eta adinekoen premiak konektatzera bideratutako programak eta kolaborazioak, hala nola, adinekoentzako mentoring-programak gazteentzat, haurrei eskolara edo eskolaz kanpoko jardueretara laguntzeko jarduerak.
- OME.** Age-friendly world OMEren munduko sarea da adinekoek egokitutako hiri eta komunitateentzat, eta ikuspegi komun bat du: beren komunitatea zahartzeko leku handi bat bihurtzea. Adinekoen komunitate-bizitzan erabateko parte-hartzea sustatzen duen eta zahartze osasungarria eta aktiboa sustatzen duen tokiko ekintza da.

•9. proposamena

-Landa-ingurunean tokiko zaintza-, gizarte- eta osasun-ekosistemak sustatzea, zerbitzu ez-presentzialak (BetiON) edo deszentralizatuak (CRADak, adinekoentzako ostatu lagundurako alternatibak...) garatuz, desagertzeko arriskuan dauden landa-guneetan eta koadrila-buruetan (Maeztu...) jardunez, hala dagokionean.

•Adierazleak eta erreferentziak

- Jarraipen-adierazleak:
 - Arabako (Añanako edo Arabako Mendialdeko) eta Bizkaiko (Enkarterriak) landa-eremuetan zaintza pilotuko tokiko ekosistemak abian jartzea.
- Ebaluazio-adierazleak:
 - Helburuak: 5.1 + Biztanleriaren egitura eremu geografikoaren arabera (sartu) eta lurraldeka aztertutako beste adierazle batzuk.
 - Funtsezko faktoreak: garatzeko zain (lurraldeka aztertutako beste adierazle batzuk).
- Erreferentziak (dokumentuak eta, hala badagokio, neurriari buruzko estekak):

•Arduradunak eta aurrekontua

- Sailak: Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak.
- Aurrekontua (2023): oraindik ez dago aurreikuspenik.

•Proposamena 10

-Zainketen sektorea profesionalizatzea, pertsona ardatz duen zainketa-eredu berriari lotutako **enplegu-aukera berriak eta kualifikazio-eskakizunak aztertuz.**

-**Silver Economy** sustatzea, enplegu-aukerak sortzeko ikuspegitik.

•Adierazleak eta erreferentziak

- Jarraipen-adierazleak:
 - ZAINLABen garapena.
 - Silver Economyren esparruan enplegua sortzen duten proiektuei laguntzea, Sailaren berezko tresnetatik.
 - Eremu horretan kualifikatutako pertsonen kopurua.

-Ebaluazio-adierazleak:

·Helburuak: 3.1etik 3.4ra?

·Funtsezko faktoreak: 3.1etik 3.6ra?

-Erreferentziak (dokumentuak eta, hala badagokio, neurriari buruzko estekak)

-Erlazionatutako programak:

·Zaintzari balioa emateko eraldaketa sozialeko proiektua (GFA/Adinberri).

Adinprest: arretan eta zainketan profesionalizazioa eta gaikuntza diseinatu eta bultzatzea, zaintzaileei arreta berezia eskainiz, zaintza profesionalen merkatu bat sortzeko, egoitza- eta etxe-eremuko arreta- eta zaintza-eredu berriei erantzungo diena ZAINLAB proiektuarekin lerrokatuta (GFA/Adinberri).

-GFAREN proiektu esperimentalak:

·**SSI taldea:** Etxean Prest. Profesionaltasun-ziurtagiriatarako aurretiko prestakuntza eta laguntza

·**SSI taldea:** Nor Etxean. Etxeko zainketen sektorean kontratazioa eta gaikuntza laguntzeko zerbitzu pribatu profesionala.

·**Tknika:** Etxe digitala. Baliozko zahartze aktibo eta osasungarri baterako ingurune adimendunak.

-BFA:

·**Nagusi Intelligence Center,** Bizkaiko estrategiaren eremu motor gisa, zilar ekonomiaren inguruan.

·NF proiektua, **silver economyrekin eta ekintzaitzarekin lotutako sustapen-neurriak** barne hartzen dituena.

·**Arduradunak eta aurrekontua**

-Sailak: Lana eta Enplegua, honako hauekin lankide dituela: Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak; Osasuna (zainketa sozial eta sanitarioen eredia, gaikuntzak, profilak eta premiak zehaztea zainketa instituzionaletan, zaintza instituzionala indartzea eta familia zaintzaileei laguntzea); Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena (Silver economy); Hezkuntza (kualifikazio profesionalak).

Parentesi artean adierazitako alderdiak dagokion sailaren ardura dira.

•11. proposamena

-Adineko autonomoekin eta autonomia sustatzera bideratutako gizarte-politikak bultzatzea, baita hauskortasun- edo mendekotasun-egoeran dauden adineko pertsonena ere.

·**Adierazleak eta erreferentziak**

-Jarraipen-adierazleak:

·60-100 Generations programa eta horri lotutako proiektu pilotuak garatzea:

-Altxor 7.0. Online zerbitzua eta adinekoen bizi-proiektuei laguntzeko 3 bulego pilotu deszentralizatu.

-Bizitza Betea Trebakuntza Plana. Adinekoen proiektu indibidualak eta kolektiboak bizitza betearen ikuspegitik garatzeko trebakuntza-plana.

-Helduak Zabaltzen. Adinekoen gizarte-zentroak eraldatzeko prozesua.

·Agenda Nagusi sustatzea (landutako prozesuak), baita Euskadiko Adinekoen Batzordea ere –Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko lan-taldea (bultzatutako proiektuak)–, adinekoekiko gobernantzarako euskal strategiaren esparruan.

-Ebaluazio-adierazleak:

·Helburuak: 3.1 eta 3.2.

·Funtsezko faktoreak: 3.1etik 3.4ra.

-Erreferentziak: (dokumentuak eta, hala badagokio, neurriari buruzko estekak): ez da abian den neurria.

·Agenda Nagusi: <https://agendanagusi.eus/indexEUS.html>
<https://agendanagusitv.eus/eu/hasiera/>

·[Adinekoen aldeko EAEko Gobernantza Estrategia 2019-2022](#)

·[Euskadi Next. Suspertzeko eta Bizitzeko Euskal Programa 2021-2026](#)

-Erlazionatutako programak:

[Bizkaiko Adinekoen Kontseilua](#)

•**Arduradunak eta aurrekontua**

-Sailak: Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak.

-Aurrekontua (2022): zehazteke.

•**Aztertutako beste eredu batzuk**

·Proposamen berria da.

•**Proposamena 12**

-**Adinekoentzako zaintza** sozial eta sanitarioen eredu berri baterako trantsizio-politikak bultzatzea.

-**Silver economy** bultzatzea.

-**Bizimodu independentea bultzatzea.**

•**Adierazleak eta erreferentziak**

-Jarraipen-adierazleak:

·Honako hauek diseinatu, garatu eta ebaluatzea:

-Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa (adinekoak).

-Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia – Arreta soziosanitarioko eredu integral berri bat bultzatzea.

-Familia Zaintzaileei Laguntzeko Estrategia Soziosanitaria.

-Bizitza-luzerari buruzko Europako mugaz gaindiko poloa: ikerketa- eta prospekzio-sarea (behatokiak), berrikuntza-sarea eta prestakuntza-sarea.

-Pasaia Herri Lab eta zaintzako tokiko beste ekosistema batzuk: Hernani, Azpeitia, Usurbil, Zestoa...

-BetiON 80 urtetik gorako pertsona guztietara zabaltzea.

Zahartzeari buruzko hiru berrikuntza-polo diseinatzea, garatzea, konektatzea (espezializazioa eta sinergiak) eta ebaluatzea: Adinberri (erreferentzia-zentroa – berrikuntza-unitatea), Nagusi Intelligence Center eta Zahartzeari buruzko Ikerketa eta Berrikuntza Zentroa Araban.

Lurralde bakoitzean egindako ekimenen eta eragileen mapaketa eta silver economy garatzeko lurralde-estrategiak (esparru estrategikoa, espezializazio-nitxoak eta jarduketaplana), definituta, lerrokatuta eta abian.

Proiektu esperimentalen eta ikuspegi berritzaileen diseinua, garapena eta ebaluazioa: a) komunitateko arreta-eredu berriak (bizilekua) eta egoitzakoak; b) harremanetan oinarritutako arreta-eredua.

Etxe eta egoitzetako digitalizazioa bultzatzea (kopurua).

Hauskortasunari dagokionez, baloratzeko eta esku hartzeko ikuspegiak eta tresnak diseinatzea eta garatzea.

Bizimodu independentearen eredua bultzatzea: bizimodu independentearen aldeko hautua egiten duten pertsonen kopurua eta laguntza-modalitateen garapena

-Ebaluazio-adierazleak:

·Helburuak: 3.1etik 3.4ra, 3.3 izan ezik.

·Funtsezko faktoreak: 3.1etik 3.6ra.

-Arreta-piramidearen inbertsioa, komunitateko lehen eta bigarren mailako arretaren alde (3.6)

-Zaintza instituzionala indartzea eta familia-zaintzaren pisua murriztea (3.3tik 3.5era).

- Mendekotasun-egoeran edo hauskortasun-egoeran dauden eta etxean bizi diren eta komunitatean artatzen diren adinekoen kopurua.
- Zaintzarako tokiko ekosistemak abiaraztea eta garatzea (sistema-kopurua, inplikaturako sektoreak, artatutako pertsonak...).
- Gastu soziala, funtzioaren arabera (BPGaren %): iraupen luzeko zaintzak.
- Osasunean eta gizarte-zerbitzuetan egindako ahalegina (gastua/dirubilketa), 60 urte eta gehiagokoei zuzendua.
- Erreferentziak (dokumentuak eta, hala badagokio, neurriari buruzko estekak):
 - Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren eta II. Planaren ebaluazioa.
 - Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia.
 - Familia Zaintzaileei Laguntzeko Estrategia Soziosanitaria.
- Erlazionaturako programak:
 - Etxean bai: etxean bertan iraupena eta arreta sustatzeko estrategia (AFA)
 - Gizarea: harremanetan oinarritutako arreta-eredua (AFA).
 - EtxeTIC: mendekotasun-egoeran dauden pertsonak etxean jarraitzeko arreta- eta laguntza-zerbitzua, monitorizazioaren, prebentzioaren eta arriskuen detekzioaren bidez, teknologia berrietan oinarrituta (BFA)
 - Egoitza-zentroak eraldatzea: bizikidetzaren unitateak sortzea pertsonalizazio handiagoa lortzeko, eta erreferentziarako eskualde-zentroak ezartzea egoitza-sare osorako laguntza-unitate gisa (BFA).
 - Bizkaia Zaintza Eskola, zaintzaileentzako prestakuntza-programa egiaztatua (BFA).
 - Silver Economy erronka, 5 espezializazio-nitxorekin: arreta- eta zaintza-ereduak (telemedikuntza eta telelaguntza aurreratua), etxearen egokitzapena, turismo seniorra, hiri atseginak eta teknologia digital gaitzaileak (IoT, ia, Sensorica, robotika...).
 - (GFA/Adinberri).
 - Hauskortasuna: GoiOSASUNlab, Ifree, hauskor, UVAF/AGASE...

•Arduradunak eta aurrekontua

- Sailak: Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak eta Osasuna (bi sistemak eta espazio soziosanitaria).
- Aurrekontua (2023): oraindik ez dago aurreikuspenik.

•Proposamena 13

-EAEko 60 urtetik gorako pertsonen artean, **arrisku soziosanitarioko faktoreak detektatzea ahalbidetuko duen tresna bat** sortzea, iragarpen-faktore jakin batzuk definituz eta mailakatuz.

•Adierazleak eta erreferentziak

- Jarraipen-adierazleak:
 - Ekintza hauek garatzea:
 - Lantalde bat sortzea profesional sozial eta sanitario adituekin.
 - Arrisku soziosanitarioko detektatzeko kontuan hartu beharreko itemak proposatzea.
 - Instrumentuaren prototipoaren baterako proposamena egitea.
 - Tresnaren funtzionaltasuna baloratzeko eta hobetzeko pilotajea.
 - ASEKi adostasun-proposamena aurkeztea.
- Ebaluazio-adierazleak:
 - Helburuak: 3.1etik 3.4ra, 3.3 izan ezik.
 - Funtsezko faktoreak: 3.1etik 3.6ra.
- Erreferentziak (dokumentuak eta, hala badagokio, neurriari buruzko estekak): ez da abian den neurria.

•Arduradunak eta aurrekontua

- Sailak: Osasun Saila, Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin lankidetzan.
- Aurrekontua (2023): oraindik ez dago aurreikuspenik.

B.4. IV. ardatza, lehenetasunezko jarduketari buruzkoa: migrazioa txertatzea

·Jarduketa-ardatzaren deskribapen sintetikoa

·Migratzaileak iristeko zailtasunak gainditzeko ekintza-ildo bultzatzaile bat zehaztu eta garatzea, eta gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza-ibilbideak ezartzea, bai eta gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide erabilgarri eta eskuragarriak ere.

·Lan-hipotesia

·Gure herriaren demografiak migratzaileen ekarpena behar du. Horretarako lehenengo helburua integrazioa da. Premisa da bizileku- eta lan-baimenen arloko baldintzak aldatzea eta erraztea. Hala ere, ahalmen hori EAEko eskumen-eremutik kanpo dago. Euskal erakundeen eskumenen barruan, lehenetasunezkoa da gizarteratzea eta laneratztea, eta, horretarako, beharrezkoa da ibilbide lagunduak eta sustatuak zehaztea, prestakuntza, trebakuntza, kualifikazioa, homologazioa eta profesionaltasun-ziurtagiria aintzat hartuta.

·2030erako helburua

·Gizarteratzeko eta Integraziorako Euskal Indize Sintetikoaren³ oinarrizko zazpi dimentsioak %10 handitzea, Euskadin migratzaileak integratzeari dagokionez, inoren kargura ez dauden adingabeak izateari uzten dioten gazte migratzaileak barne.

·Gizarteratzeko eta Gizarteratzeko Euskal Indize Sintetikoaren oinarrizko zazpi dimentsioak %10 handitzea, asilo-eskatzaileak Euskadin integratzeari dagokionez.

·Legegintzaldiaren helburua

·Migratzaileen prestakuntza-, gaikuntza-, kualifikazio-, homologazio- eta profesionaltasun-ziurtagirirako ibilbideak zehaztea.

·Laguntza-zerbitzu pertsonalizatua sortzea, migratzaileak gizarteratzera eta laneratzera bideratua, Gobernu Programaren 90. konpromisoaren 5. ekimenean aurreikusitakoaren ildotik.

·Aztertu beharreko proposamenak

·Gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide erabilgarri eta eskuragarriak sustatzea Euskadiko migratzaileentzat:

•14. proposamena

-Migraziorako Euskal Itun Soziala garatzen jarraitzea, itun horrekiko atxikimendua gizartean eta erakundeetan zabaltzea, eta haren betetze-mailaren jarraipena eta urteko ebaluazioa egitea.

·Adierazleak eta erreferentziak

-Jarraipen-adierazleak:

·Urtero sustatutako ekintzen kopurua.

-Ebaluazio-adierazleak:

·Adostasun-maila eragile anitzeko foroetan.

·Arduradunak eta aurrekontua

-Sailak: Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak, Lehendakaritzarekin batera.

•15. proposamena

-Migratzaileak laneratzeko ibilbide pertsonalizatuena indartzea, orientazioaren, prestakuntzaren eta erregularizazio-prozesuetan laguntzearen bitartez, lan-eremura igarotzea ahalbidetzeko (Enplegu Zerbitzu Publikoa).

³Iturria: <https://www.ikuspegi.eus/documentos/panoramicas/pan78cas.pdf>

-**Migratzaileak erakartzera** bideratutako jarduera eta ekimen berritzaileak garatzea, lan-merkatuaren beharrei erantzuteko.

-**Aniztasuna kudeatzeko politikak** ebaluatzea, **gizarteratzearen eta laneratzearen ikuspegitik**.

-**Lanpostura egokitutako kontratazioa eta prestakuntza sustatzeko** tresna espezifikoak garatzea.

•**Adierazleak eta erreferentziak**

-Jarraipen-adierazleak:

- Enplegu- eta prestakuntza-ekintzen/pizgarrien kopurua.
- Ibilbideetan dauden migratzaileen kopurua.
- Ordezkapena behar duten eta bertako eskaintza bete ezin duten lanpostuen kopurua.
- Pertsonak erakartzeko jarduketaren kopurua.
- Erakarrirako pertsonen kopurua.
- Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden migratzaileen egoerara egokitutako ekimenak edo berariazkoak garatzea.

-Erreferentziak (dokumentuak eta, hala badagokio, neurriari buruzko estekak): ez da abian den neurria.

[Elkar-Ekin Lanean](#)

Arduradunak eta aurrekontua

-Sailak: Lana eta Enplegu Saila, Berdintasuna, Justizian eta Gizarte Politiketako Sailarekin lankidetzan, bereziki Migrazio eta Asilo Zuzendaritzarekin (harrerako euskal eredu).

Erakarpen-jarduerak garatzeko, Lan eta Enplegu Saila elkarlanean arituko da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin (Gazteria Zuzendaritza, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza, Haurren eta Familien Zuzendaritza), enpleguaren eta enprekin egiten den lanaren esparrua gainditzen duenari dagokionez.

Aniztasuna kudeatzeko politiken ebaluazioa, oraindik gizarteratzearen eta laneratzearen eremuan oinarritua, Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzarekin ere koordina liteke.

-Aurrekontua (2022): zehazteke.

•**Aztertutako beste eredu batzuk**

·**Finlandia**. Prestakuntza eta ikaskuntza informala onartzea, lan-munduan sartzeko bide malguak sortzeko. Eredu horren birtualtasunetako bat aldakortasuna da. Ez du prestakuntza-erantzun bakarra edo zurruna eskaintzen, baizik eta testuingurura eta haren beharretara egokitzen da.

•**16. proposamena**

-Helduarora igarotzeko prozesuetan **familiarentzako laguntza-sarerik ez duten gazteei laguntzeko programa pilotua eta Euskarri estrategia**. Gazte horiek migratzaileak izan daitezke edo ez, eta babes-saretik kanpo egon daitezke edo ez.

Proiektu pilotuaren osagarri, arlo horrekin lotutako Europako proiektu batean parte hartu da, ESN (European Social Network – Gizarte-zerbitzuen arloko sektore publikoaren Europako sarea) erakundearekin lankidetzan.

•**Adierazleak eta erreferentziak**

-Jarraipen-adierazleak:

- Euskarri Estrategia garatzea.
- Programa pilotua diseinatu, abiarazi eta ebaluatzea (Trapezistak).
- Programan parte hartzen duten gazteen kopurua.
- Europako proiektuaren garapena, egindako ekarpenak eta ikaskuntzak.

-Ebaluazio-adierazleak:

·Helburuak: 4.1 eta beste adierazle batzuk, jatorriaren arabera.

•**Arduradunak eta aurrekontua**

-Sailak: Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak, Lehendakaritza, Lana eta Enplegua, Hezkuntza, Osasuna eta beste sail batzuekin lankidetzan.

-Aurrekontua (2023): oraindik ez dago aurreikuspenik.

•**17. proposamena**

-Migratzaileak **hartzeko euskal eredia** diseinatzea eta abian jartzea.

Ereduak barne hartzen du harrera-zerbitzu espezializatu eta pertsonalizatu bat garatzea

•**Adierazleak eta erreferentziak**

-Jarraipen-adierazleak:

·Euskal harrera-eredua diseinatzea eta martxan jartzea.

·Bulegoak eta erreferentziazko teknikariak hedatzea.

·Arreta jaso duten pertsonen, bikoteen eta familien kopurua.

-Ebaluazio-adierazleak:

·Helburuak: 4.1 eta jatorriaren araberako beste adierazle batzuk.

•**Arduradunak eta aurrekontua**

-Sailak: Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak, Lehendakaritza, Lana eta Enplegua, Hezkuntza, Osasuna eta beste sail batzuekin lankidetzan.

-Aurrekontua (2022): zehazteke.

HIRUGARREN ZATIA

C. Zeharkako jardun-ildoak

C.1. 1. ildoak, zeharkako jarduketari buruzkoa: **landa-balioa handitzea**

·Jarduketa-ardatzaren deskribapen sintetikoa

·Landa Garapen Integraleko Politika bat bultzatzea, lurralde-orekan eta gizarte-kohesioan oinarritua, landa-ingurunearen zahartzea eta despoblazioa lehengoratzeko lagunduko duena eta Euskadiko landa-eremuak bizitzeko eta jarduera sozioekonomiko bideragarriak eta jasagarriak egiteko gune erakargarriak izan daitezzen lortuko duena, hau da, bizikaltatearekin eta lehiakortasunarekin.

·Lan-hipotesia

·Osasun demografikoak hiri-eremuaren eta landa-eremuaren arteko harreman ekologikoa dakar. Horretarako, baldintza egokiak sustatu eta babestu behar dira, landa-ingurunearen berezko proiektu sozioekonomikoen bideragarritasun- eta populazio-desorekak birbideratzeko.

·2030erako helburua

·Landa-eremuko biztanleriaren batez besteko adina murriztea.

·Landa-biztanleriaren hazkundera sustatzea, bai igoerak erregistratzen hasi diren eskualdeetan, bai beherakadak izan dituzten eskualdeetan, "Arabako despoblazio-prozesuaren ikerlan demografikoa, azterketa eta diagnostikoa oinarri hartuta. Euskal Herriko Unibertsitateak 2021en egindakoa da ikerlan hori

·Legegintzaldiaren helburua

·Landa Ingurunearen Garapenerako Lege berria eta horren ondoriozko gobernantza-tresna eta -formula berriak abian jartzea.

·Bertako gazteei zein migratzaileei pizgarriak emateko programa bat definitzea, landa-ingurune bizi-proiektuekin lotura izan dezaten.

·Smart Villages kontzeptuan eta gizarte-berrikuntzan sakontzea, landa-eremuen garapen sozioekonomikoari laguntzen dioten elementuak diren aldetik.

·2021-2022 helburua

·Eusko Legebiltzarrak Landa Garapenari buruzko Legea onartzea eta Nekazaritza Politika Bateratuaren hurrengo Plan Estrategikoko 2. zutabeko neurriak diseinatzea (Landa Garapena). Oinarri horien gainean ardaztuko dira 2023-2027 programazio-aldian abian jarriko diren laguntza-programak.

·Aztertu beharreko proposamenak

·**Landa-ingurunearen zahartzea eta despoblazioa lehengoratzeko eta haren bideragarritasuna eta iraunkortasuna bultzatzeko helburuarekin:**

•18. proposamena

-Plan honetako jarduera guztietan hiri- eta landa-dimentsio bikoitza ezartzea zeharka, aurreikuspenari, diseinuari eta aplikazioari dagokienez, landa-inguruneak planteatzen dituen premia berezietara egokitzeko eta horiei erantzuteko jarraibide espezifikoak ezarri.

-Euskal erakundeen politika publikoek eta araudiek landa-ikuspegia txerta dezaten sustatzea, arrisku demografiko handia edo oso handia duten eremuak ere kontuan hartuta.

-Etorkizuneko Landa Garapenaren Legearen esparruan, ekonomia-, hirigintza- eta gizarte-erloto neurri sorta bat bultzatzea, landa-ingurunearen zahartzea eta despoblazioa lehengoratzeko eta Euskadiko landa-eremuak bizitzeko eta jarduera

sozioekonomiko bideragarri eta iraunkorrak gauzatzeko gune erakargarriak izan daitezen lortzeko⁴.

-Landa-eremuko udalei kudeaketa indartzeko eta laguntzeko programak edo neurriak abian jartzea: beren funtzionamendua errazteko eta eguneroko lanean eraginkortasun handiagoz jarduteko aukera emango dieten zerbitzuak eta tresnak ematea, beste administrazio batzuei lehen harrera egiteko eta beste administrazio batzuetara bideratzeko erraztasunak eta arintasunak ematea, eta haiekin lankidetzan aritzea administrazio-kudeaketan.

·Adierazleak eta erreferentziak

-Jarraipen-adierazleak:

·Landa-ikuspegia txertatu duten politiken eta arauen kopurua, eta arrisku demografiko handia edo oso handia duten eremuetan abian jarritako jarduera instituzionalen kopurua.

·Landa Garapeneko Legea onartzea eta aipatutako helburuak dituzten neurriak sartzea.

-Ebaluazio-adierazleak:

·Helburuak: 5.1 + Biztanleriaren egitura eremu geografikoaren arabera (sartu) eta lurraldeka aztertutako beste adierazle batzuk.

·Funtsezko faktoreak: garatzeko zain (lurraldeka aztertutako beste adierazle batzuk).

·Arduradunak eta aurrekontua

-Sailak: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Saila.

-Aurrekontua (2023): oraindik ez dago aurreikuspenik.

·Aztertutako beste eredu batzuk

·**Eskozia. Highlands and Islands Enterprise ekimenak** eragin soziala duten enpresak sortzea bultzatu du, gehienetan trust figurarekin sortuak, eta onuraduna komunitatea bera izan da. Gainera, enpresen %60 emakumeak zuzentzen dituzte.

·**Irlanda.** Landa Berrikuntzako Zergen Plan bat egon da: Rural Renewal Tax Scheme. Plan horrek, beste neurri batzuen artean, zerga-salbuespenak eskaintzen zituen higiezinak alokatzeko; eta pizgarriak, horiek eraikitzeko eta berritzeko, eta Hiria Berritzeko Plan bat ere bai: "Town Renewal Scheme", alegia.

⁴ Adibide gisa, honako neurri-multzo hau proposatzen da:

- Hirigintza-araudia egokitzea: araudi berria 500 biztanletik beherako guneetarako, hirigintza-arauen eta antolamendu-planen idazketa eta aldaketa bizkortuz, eraikinak edo lursailak landa-etxebizitzan parkean sartzeko, biztanleriaren errolda bermatzeko eta handitzeko; udal-ordenantzak aztertzea eta egokitzea.

- Zerga-sistema landa-eremuko helburuetara egokitzea: tratamendu fiskal berezia gune behartsuentzat, hala nola mendialdeentzat; jarduera ekonomiko berriak sustatzeko zerga-neurriak.

- Azpiegiturak garatzea: gas naturalaren sarea hedatzea; ur-hornidura; ibilgailu partikularrentzako aparkalekuak herrien hasieran (azken milia); turismo- eta zerbitzu-seinaleak hobetzea; landa-bideak hobetzea eta mantentzea.

- Landa-ingurune etxebizitza-politikak sustatzea (hiriguneetan eraikinak birgaitzea, abandonatuak edo erabilera txikikoak; alokairuko merkatuan etxe itxiak edo erabilera-intentsitate txikikoak jartzea; behar bereziak dituzten herri txikietan etxebizitza egiteko lursailak erostea) eta landa-ingurunean pertsona eta familia gazteen (adinekoak, migratzaileak edo bertakoak) bizi-proiektuak bultzatzera bideratutako programa espezifiko bat bultzatzea.

- Digitalizazioa bultzatzea: teknologia eta konektibitatea erabiltzeko eredu bat definitzea, landa-eremuetako pertsonen ongizatean oinarritua; oinarritzko zerbitzuetarako sarbide digitala (hezakuntza eta prestakuntza online, telemedikuntza, telelaguntza...); zuntz optikoa eta diru-laguntzak zabaltzea banda zabalera konektatzeko eta faktura digitala ordaintzeko (telefonía eta telebista); modernizazioa eta digitalizazioa nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategietan.

- Ekintzailatza sustatzea (mintegien sarea, coworking zentro txikiak, ekonomia suspertzeko jarduerak tokiko eragileekin lankidetzan) eta tokiko merkataritza bultzatzea: erakusketako, salmentako eta tokiko produktuen erosketa sustatzeko aurreko eta online ekintzak.

- Desplazamenduagatik irismen txikiko irratietan oinarritzko zerbitzuetarako sarbidea sustatzea: supermerkatuak finkatzea, finantza-zerbitzuak (kutzazainak...), entrega- eta hornidura-zerbitzuak (paketeak...), farmazia-produktuen banaketa...

C.2. 2. ildo, zeharkako jarduketari buruzkoa: prospekzioa, dibulgazioa eta komunikazioa

·Jarduketa-ardatzaren deskribapen sintetikoa

·Azterketa-, dibulgazio- eta komunikazio-ekimenak modu artikulatuan garatzea, demografiaren gaia lehenetsuneko arreta sozial, politiko eta instituzionaleko lehenetsunen agendan kokatzeko. 2022tik aurrera, maiatzean demografiari buruzko "Maiatza demografikoa" izenekoa urtero sustatzean jarriko da arreta. Aldi horretan, urtero, erakundeen publizitate-kanpainak, dibulgazio-ekimenak, biltzarrak, jardunaldiak edo mintegiak sustatuko dira, berriazko azterlanak argitaratuko dira eta balantzeak eta jarduera-planak aurkeztuko dira. Komunikabideak gai horri buruzko informazio, erreportaje edo kroniken bidez gonbidatuko dituzte ekarpenak egitera.

·2030erako helburua

-Erronka demografikoari buruz, urtero, maiatzean, erakunde-maila guztietatik (udalak, aldundiak eta Eusko Jurlaritzak), hirugarren sektoretik, ekimen pribatutik edo unibertsitate- eta ikasketa-esparrutik datorren hausnarketa-, dibulgazio- eta proposamen-ekimenak elkartzea ahalbidetuko duen dinamika sendotzea.

-Prospekzio-tresnak artikulatzea, modu erregularrean eta jarraituan diagnostiko sakonak egin ahal izateko, bai emantzipazio berantiarrean edo jaiotza-tasan eragina duten faktoreei buruz, bai errealitate demografiko osoari buruz eta horren bilakaerari, kausei eta ondorioei buruz.

-Kontzientzia sozial eraikitzailea sendotzea problematika demografikoari dagokionez, eta sinergia eta *auzolana* pentsaera bultzatzea.

·Legegintzaldiaren helburua

·Gai demografikoa arreta sozial, politiko eta instituzionaleko lehenetsunen agendan kokatzea.

·Gizarte-kontzientzia kritikoa sortzen laguntzea erronka demografikoari buruz, bai eta erantzunkidetasuna eta belaunaldien arteko konpromisoa bezalako balioak sustatzen ere.

·Erakundeek erronka demografikoari erantzun konstruktiboa emateko herritarren zerbitzura jartzen dituzten neurriei buruzko informazio argia eta eraginkorra eskaintzea.

·Programa honi urtero 250.000 euroko oinarritzko aurrekontua bideratzea legegintzaldi honetan eta 2023tik aurrera.

·Aztertu beharreko proposamenak

·Demografiari buruzko prospekzio-, dibulgazio- eta komunikazio-ekimenak garatzeko helburuarekin:

•19. proposamena

-Erronka demografikoaren arloan, legegintza osorako dibulgazio- eta komunikazio-plan bat egitea.

-Lehenengo jarduera-programa diseinatzea: "Maiatza demografikoa 2022".

·Adierazleak eta erreferentziak

-Jarraipen-adierazleak:

·Europako erakundearen inplikazioa.

·Erakunde arteko lankidetzarako eta lankidetzak sozialerako sortutako guneak.

·Eskaintzen diren formula eta metodologia parte-hartzaileak.

-Ebaluazio-adierazleak:

·Garatutako ekintzen kopurua eta inplikaturako sektoreak.

·Eragin mediatikoa eta ekitaldietan parte hartzea.

·Guztatutako aurrekontua.

·**Arduradunak eta aurrekontua**

- Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia.
- Aurrekontua (2023): 150.000 euro.

·**20. Proposamena**

-Diagnostiko-tresnen eta prospekzio-azterlanen programa bat diseinatzea eta abian jartzea, errealitate demografikoa eta haren bilakaera, kausak eta ondorioak hobeto ezagutzeko.

·**Adierazleak eta erreferentziak**

-Jarraipen-adierazleak:

- Euskadin, Estatuan eta European lehendik dauden azterlanak egiten jarraitzea edota sakontzea.
- Eragile eta maila anitzeko lankidetzak-jarduerak prospektiboen garapenean.
- Prospektibaren arloan duten berrikuntzagatik nabarmentzen diren ekarpenak.

-Ebaluazio-adierazleak:

- Egindako azterlanen kopurua.
- Haien eragin mediatikoa eta zabalkundea.
- Neurriak eta politikak orientatzean eta eguneratzean duen eragina, aldizkako diagnostiko sakon batetik abiatuta.
- Gauzatutako aurrekontua.

·**Arduradunak eta aurrekontua**

- Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia.
- Aurrekontua (2023): 100.000 euro.

2.7. VII. ardatza, zeharkako jarduketari buruzkoa: **aurrekontua**

·**Jarduketa-ardatzaren deskribapen sintetiko**

Jarduera-ardatz honetan, I., II. eta III. proposamenek dakarten konpromiso ekonomikoa aurkezten da. Garrantzitsua da azpimarratzea, proposamen horiei dagokienez, Jaurlaritzak sail guztien bidez bideratzen duen aurrekontuaren osagarri dela, Euskadik aurre egin beharreko erronka demografikoa gainditzeko eta hari egokitzen laguntzen duten politika publikoen mix zabal eta anitz erabiliz (ikus taula).

·**Aztertu beharreko proposamenak**

•**21. proposamena**

-Erronka demografikoaren arloan epe labur, ertain eta luzerako erantzuna aurkezteko erabiliko diren aurrekontu-baliabide gehigarriak zenbatestea eta adostea, eta, beraz, epe laburrerako inpaktu-irizpidea duten jarduketaren programari lotutako zenbatekoak bereiztea.

·**Adierazleak eta erreferentziak**

-Jarraipen-adierazleak:

·Aurrekontuaren zenbateko gehigarria.

-Ebaluazio-adierazleak:

·Estatuko, EBko eta ELGAko datuekin alderatzeko erreferentzia

·**Arduradunak eta aurrekontua**

-Sailak: Ogasuna eta Lehendakaritza Eusko Jaurlaritzan eta Foru Aldundiak.

·**Aztertutako beste eredu batzuk**

·**EBko herrialdeen datuak.** Aldaketa demografikoaren ondorioei buruz Batzordeak 2020ko ekainean egindako txostenaren arabera, politikak tokian tokiko errealitatean oinarritu behar dira, eta eskualdeen arteko desberdintasunak murriztu behar dira. 2017an, familiei eta seme-alabei bideratutako gastu soziala gastu osoaren %3,8 izan zen batez beste, eta BPGaren %2,3; herrialdeen arteko aldeak nabarmenak izan ziren: %8tik gorakoak, alde batean; eta %2tik beherakoak, beheko muturrean. Batzordeak goranzko konbergentzia sustatu nahi du bidezko trantsizioa bermatzeko eta justizia soziala, aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza defendatzeko, bereziki eskubide sozialen Europako zutabearen eta 2020-2025 Genero Berdintasunerako Europako Estrategiaren bitartez.

·**ELGERen datuak.** 2015ean, ELGEko herrialdeen batez besteko gastua BPGaren %2 zen. Batzordearen txostenak azpimarratu du beharrezkoa dela gogoeta demografikoak EBren politiketan txertatzea. Eskura dituen tresna guztiak erabiliko ditu, epe luzerako aurrekontu berriaren bidez eta Next Generation EU (Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eta REACT-UE) eta FSE 2021-2027 suspertze-tresnaren bidez. Europaren Etorkizunari buruzko Konferentzia funtsezko plataforma izango da irtenbideak entzuteko, ikasteko eta aurkitzeko.

	2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	2022-2030 guztira	2022-2024 guztira	OHARRAK
I. proposamena												
II. proposamena												
III. proposamena												
IV. proposamena												
1. proposamena												
2. proposamena												
3. proposamena												
4. proposamena												
5. proposamena												
6. proposamena												
7. proposamena												
8. proposamena												
9. proposamena												
10. proposamena												
11. proposamena												
12. proposamena												
13. proposamena												
14. proposamena												
15. proposamena												
16. proposamena												
17. proposamena												
18. proposamena												
19. proposamena												
20. proposamena												
21. proposamena												

3. Interpretazio- eta jarraipen-esparrua

*Erronka Demografikorako Euskal Estrategia **esparru-estrategia** gisa ulertzen dugu, diagnostiko eta ebaluazio jarraituan oinarritutakoa, irekia eta esperientziatik abiatuta alda daitekeena.*

Estrategiaren helburua da erronka *demografikoaren kudeaketaren* inguruko PDCA ziklo bat diseinatzea, hedatzea eta eguneratzea. *Ikaskuntzaren testuinguru horretan eta saiakera gisa, honela ulertzen da erronka demografikoa:*

- Bizi-ziklo osoa kontuan hartuta, biztanleria-piramidearen oreka egokia, nahitaez ezegonkorra, eratzea eta horri eustea;
- Komunitate batek behar beste biztanle izan ditzan, profil eta gaitasun egokiak izan ditzan, eta banaketa egokia izan dezan (adinarena, geografikoa...), garapen ekonomikoa, bizi-kalitatea eta gizarte- eta lurralde-kohesioa bermatzeko;
- Pertsonak eta familiek beren bizi-proiektuak beren aukeren arabera eta ahalik eta autonomia handienarekin garatu ahal izan ditzaten.

Estrategia hori oreka edo balantze demografikoari eta sozio-ekonomikoari buruzko **helburuetara** bideratuta dago, eta **funtsezko faktoreetan** eragiten du, faktore **horiei lotutako ardatz estrategikoetan edo lehentasunezkoetan bildutako trakzio-ekimenen** bidez horiek lortzeko.

- Lehendakaritzaren edota sailen ekimenak eta jarduerak, estrategiak berak jasotzen dituenak, estrategikotzat edo lehentasunezkoetat definitutako ardatzekin lotzen direnean, edo hari lotutako estrategia eta plan sektorialak.
- Erakunde arteko ekimenak, sektore artekoak eta baita eskualde artekoak edo nazioz gairikoa ere, normalean berritzaileak eta esperimentalak, hainbat mailatan partekatu eta eskalatu daitezkeenak.

Aurreneko biak "jarduera estrategikoko ardatz" gisa kalifikatzeko, honako lan-hipotesi hau hartu da oinarritzat:

Estrategiaren helburua da biztanleriaren piramidearen oreka berreskuratzea eta euskal gizartea gaztetzea. Ildo horretan, **gazteen emantzipazioa eta familia-proiektuen eraikuntza** funtsezko faktoreak dira, eta, aldi berean, gazteen bizi-proiektu pertsonalak eta familiakoak garatzea ere helburu da.

Gure ustez, 2030eko hamarkadan lehentasunezko faktoreetan aurrera egin izan balitz, baina ez faktore estrategikoetan, emaitza ez litzateke nahi zena izango biztanleriaren piramidearen orekari eta gaztetzeari dagokienez, nahiz eta migratzaileen ehunekoa handitu, adinekoen autonomia sustatu eta hauskortasun- eta mendetasun-egoerei arreta emateko irtenbide berriak edo hobeak aurkitu, edo lurralde-oreka hobea lortu. Horrek erakusten du estrategikotzat jotzen diren ardatzen eta gainerako ardatzen arteko aldea, horiek ere lehentasunezkoak baitira.

Ikuspegi horrek kontuan hartzen du demografia-erronkaren ikuspegi sistemikoa, bere hedadura osoan, eta, aldi berean, ibilbide luzeko fenomeno konplexu baten aurrean, denboraldi jakin batzuetarako helburuak hautatzeko beharra.

Nolanahi ere, estrategia diseinatu nahi da helburuen lorpenean eragiten duten funtsezko faktoreei buruzko hipotesietatik abiatuta, diagnostiko edo ebaluazio batean oinarrituta. Hasierako ebaluazio hori ezin da itxi, eta perfektua izatetik urrun egongo da, **trantsizio-politiken kudeaketaren** testuinguruan, zalantzakoa baita, eta ondoz ondoko ikaskuntzak behar baititu.

Ildo horretan, erronka demografikoaren inguruko **ikaskuntza-komunitate** bat sortu nahi da arian-arian, Euskadin sail guztiek, gainerako erakundeek eta lau sektoreek (publikoa, pribatua, soziala, komunitarioa) parte har dezaten, baita unibertsitateek eta beste ezagutza-zentro batzuek ere, helize laukoitzaren ikuspegitik.

Esparru horretan, posible da **bideari lehenbailehen ekitea, eta, aldi berean, arian-arian sakontzea erronka baten diagnostikoan. Erronka horrek arreta premiazkoa eta** datuetan eta ekintza/gogoeta/ekintzan oinarritutako **ikaskuntza-prozesua eskatzen ditu**, bai eta neurrien zuzenketa eta doikuntza ere, funtsezko helburu eta faktoreei lotutako strategiaren kudeaketako **aginte-taula integral**, erraz eta garrantzitsu baten adierazleetatik abiatuta.

AGINTE-TAULA

Aginte-taula integral bat osatu da, adierazle garrantzitsuen kopuru txiki batekin, demografia-erronkaren kudeaketan funtsezkoak diren helburu eta faktoreen aldizkako jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

Lerroetan, aginte-taula 3 bloke handitan egituratzen da, adierazle moten arabera: **egoera-adierazleak**, testuinguruari eta joera demografikoei dagozkienak; **adierazle/helburuak**, estrategiaren emaitzekin lotutakoak; **eta adierazle/faktore giltzarriak**, helburuak lortzeko eragina izan dezaketen faktoreei buruzko hipotesietan oinarrituak.

Lehenengoek funtsezko bi joeraren handitasunaren irudia ematen dute: biztanleriaren zahartzea eta biztanleria landunaren ordezkapen eraginkorrerako zailtasuna. Bigarrenek strategiaren bost ardatzetako bakoitzean lortu nahi diren emaitzak jorratzen dituzte. Azken horiek strategiaren proposamenen eragina neurtzen laguntzen dute.

Zutabeetan, aginte-taula erronka demografikoaren kudeaketari buruzko serie historiko bat edukitzeko egituratzen da. Lehenengo zutabeak ardatz bakoitzaren adierazleak ematen ditu, eta gainerakoak denboran zehar neurtuko dira. Bigarren zutabeak ("jatorria") adierazlearen abiapuntua islatzen du, datuen jatorri diren eragiketen aldizkakotasunaren arabera eskuragarri dagoen azken datuaren data kontuan hartuta. Hala, onena ez bada ere, jatorrizko datuak 2018, 2019, 2020 eta 2021ekoak dira. Nolanahi ere, adierazle guztiak 2022tik 2023ra bitartean eguneratzea espero da, eta horrek aukera emango du serie historiko bat ezartzeko.

Aginte-koadroaren ezaugarri nagusiak

- Koadro homogeneoa da ardatz bakoitzeko adierazle-kopuruari dagokionez, eta garrantzi bera ematen die strategiaren ardatz guztiei. Adierazle-helburuetan ardatz bakoitzeko 3 adierazle aurkezten dira; adierazle-faktore giltzarrietan, berriz, 6 sartzen dira.
- Adierazleak helburuekin eta horiek lortzeko funtsezko faktoreekin lotuta daude, baita helburuen jomuga diren taldeekin ere. Esate baterako, 1. ardatzean (gazteen emantzipazioa), adierazleak 16-29 urteko jomuga-taldean zentratzen dira, gazteen emantzipazio-tasa izan ezik; izan ere, Europako beste eskualde batzuekin alderatzeko aukera dela-eta, 18-34 urteetan dago ezarrita. Adinekoei buruzko 3. ardatzean, aldiz, adierazle gehienak 65 urtetik gorako kolektiboari buruzkoak dira.
- Sartutako adierazle guztiak eskuragarri daude, aldizka argitaratzen dira eta iturri estatistiko fidagarrietatik datoz, eta Europa mailan konpara daitezke. Batzuek herrialdeko helburuekin edo gobernu-programako beste batzuekin dute zerikusia, bai eta 2030 Agendarekin edo Gizarte Eskubideen Europako Zutabearekin ere (ikus gizarte-adierazleen taula berrikusia, Zutabearen Ekintza Plana barne hartzen duena).
- Europar Batasuneko beste eskualde batzuekin eta eskualdeko biztanleria-estatistikekin konparatzeko diseinatutako adierazleak dira⁵. NUTS3 (lurralde historikoak) edo NUTS2 (EAE) mailan erabilgarri dauden adierazleak kontuan hartzen saiatu gara. NUTS: Estatistikako Lurralde Unitateen nomenklatura.
- Adierazleak, ahal den neurrian, adinaren, sexuaren, jatorriaren (jaioterria) eta desgaitasun-egoeraren arabera bereizi beharko lirateke, GJHPan aurreikusitakoaren ildotik. Gazteei buruzkoak bi adin-tartetan (18-24, 25-29) bereizten saiatu beharko lirateke, emantzipaziokoak izan ezik (18-34).

⁵Bereziki interesgarriak dira honako hauek: a) biztanleriaren egitura adin-talde handien arabera; b) hirugarren adinekoen mendekotasun-tasa; c) aldaketa demografikoaren batez besteko tasa gordina; d) biztanleriaren batez besteko aldaketa-tasa gordina; e) batez besteko migrazio-tasa gordina; f) jaiotza-tasa gordina; g) ugalkortasun-tasa osoa; h) jaiotzako bizi-itxaropena. Hasiera batean, horiek guztiak NUTS3 eskualdearen (gure ondorioetarako, lurralde historikoen) edo NUTS2 eskualdearen (Espainiako estatuaren kasuan, autonomia-erkidegoak) arabera berezita lor daitezke.

NUTS = Estatistikako Lurralde Unitateen Nomenklatura. Ikusi: https://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?Title=Population_statistics_at_regional_level#Regional_populations

AGINTE TAULA INTEGRALA erronka demografikoa kudeatzeko

EGOERAREN ADIERAZLEAK				
	Jatorria	2023	2030	2040
Biztanleriaren egitura, adin-taldean, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera	(2021)			
Araba: 19 urtetik beherakoak (gizonak/emakumeak)	32.911 / 30.821			
20-64 urteko tartea (gizonak/emakumeak)	97.570 / 97.519			
65 urtetik gorakoak (gizonak/emakumeak)	31.756 / 39.612			
Bizkaia: 19 urtetik beherakoak (gizonak/emakumeak)	103.006 / 96.647			
20-64 urteko tartea (gizonak/emakumeak)	335.152 / 341.537			
65 urtetik gorakoak (gizonak/emakumeak)	112.379 / 155.402			
Gipuzkoa: 19 urtetik beherakoak (gizonak/emakumeak)	70.230 / 66.119			
20-64 urteko tartea (gizonak/emakumeak)	209.835 / 207.799			
65 urtetik gorakoak (gizonak/emakumeak)	71.202 / 93.702			
Hazkunde begetatiboa, lurralde historikoaren arabera	(2019) Ar: -172 Bi: -4.241 Gi: -1.729			
Biztanleria aktiboaren ordezte-indizea	(2020) 1,45			
Biztanleria aktiboaren eta ez-aktiboaren arteko oreka	(2021, 1. hiruh.) 1,27			

ADIERAZLEAK-HELBURUAK				
	Jatorria	2023	2030	2040
1.1. Emantzipatzeko batez besteko adina	(2019) 30,2			
1.2. Emantzipazio-adin ideala, gazteen iritzia (15-29 urte)	(2020) 24,5			
1.3. Gazteen emantzipazio-tasa (18-34 urte)	(2020) 35,1%			
2.1. Jaiotza-tasa, lurralde historikoaren arabera	(2020) Ar: 7,26 Bi: 6,41 Gi: 7,01			
2.3. Lehen seme-alaba izateko batez besteko adina, lurralde historikoaren arabera	(2020) Ar: 31,85 Bi: 32,43 Gi: 32,01			
2.3. Ugalkortasun-adierazle koiunturala, lurralde historikoaren arabera	(2020) Ar: 1,29 Bi: 1,19 Gi: 1,32			
3.1. Bizi-itxaropena jaiotzean, sexuaren arabera	(2019) G. 80,9 E. 86,7			
3.2. Desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena, sexuaren arabera	(2018) G. 70,5 E. 72,8			
3.3. Benetan erretiratzeko adina, sexuaren arabera	(2021) 64,1			

4.1. Immigrazio-tasa	(2019) 15,8			
4.2. Atzerriarekiko migrazio-saldoa, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera	(2020) Ar: G. 317 Ar: E. 425 Bi: G. 1.900 Bi: E. 2.308 G!: G. 1.166 G!: E. 1.376			
4.3. Biztanleria jaioterri-talde handien arabera (kontinenteak)	(2020) Europa: 47.932 Afrika: 52.506 Amerika: 129.488 Asia: 16.114 Ozeania: 461 Guztira: 246.501			
5.1. Biztanleria-dentsitatea, lurralde historikoaren arabera	(2019) Ar: 109,2 Bi: 517,0 G!: 362,3			
5.2. Landa-eremuetan bizi diren biztanleen ehunekoa	(2021) 3,81%			
5.3. Lehen sektorearen ehunekoa/BPG (guztizko enpleguaren gaineko banakapena)	(2020) BPG: %0,79 Enplegua, guztira: %1,71			

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK-FAKTOREAK				
	Jatorria	2023	2030	2040
1.1. Gazteen okupazio-tasa (16-29 urte)	(2021, 3.) %40,8			
1.2. Gazteen langabezia-tasa (16-29 urte)	(2021, 3.) %15,6			
1.3. Gazteen behin-behinekotasun tasa (16-29 urte)	(2020) %62,6			
1.4. Aldi baterako kontratuetatik mugagabeko kontratueterako trantsizio-tasa (16-29 urte)	(2021) %3,1			
1.5. Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria-tasa (30-34 urte)	(2020) %59,6			
1.6. Graduatu berrien (20-34 urte) okupazio-tasa, unibertsitate-ikasketak amaitu eta 3 urtera	(2020) %80,7			
2.1. Alokairu-erregimeneko familien ehunekoa	(2020) %14,6			
2.2. Alokairuko etxebizitza librea eskuratzeko finantza-ahalegina (18-29 urte)	(2020) %61,7			
2.3. Seme-alaba bakoitzeko jaiotza-tasarako laguntzen batez besteko guztizko zenbatekoa	(2020) 796			
2.4. Kontziliazio-neurriak dituzten hirugarren sektore sozialeko enpresen eta erakundeen kopurua	(2021) 24			
2.5. Eskola uztearen tasa	(2020) %6,5			
2.6. 2 urteko haurren eskolatzetasa	(2019) %93,1			
3.1. Zahartze-indizea, lurralde historikoaren arabera	(2021) Ar: %139,09 Bi: %168,16 Gi: %153,47			
3.2. Zahartze aktiboaren indizea	(2020) 37,3			
3.3. Mendekotasun-tasa, lurralde historikoaren arabera	(2021) Ar: %60,07 Bi: %60,26 Gi: %61,43			
3.4. Etxeko pertsona helduen zaintzan partaide bakoitzak egunean batez beste ematen duen denbora, sexuaren arabera	(2018) G: 2:09 E: 2:05			
3.5. Erosteke ahalmenaren parekotasunean gizarte-babesean egindako gastu publikoa	(2018) 9.022€			
3.6. Komunitateko erabiltzaileen plazen ehunekoa gizarte-zerbitzuetako erabiltzaileen guztizko plazei dagokienez	<i>Egiteke Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila</i>			
4.1. Biztanleria etorkinaren okupazio-tasa sexuaren arabera	(2020) H. %60,5 E. %48,8			
4.2. Etorकिन langabezia-tasa sexuaren arabera	(2020) G. %18,4 E. %23,0			
4.3. Atzerritar jatorriko (16-66 urte) biztanle landunen ehunekoa, lanbide/okupazio motaren arabera	(2018) Zuzendaria/teknikaria %15,3 Lang. kualifikatua %54 Lang. ez-kualifikazioa %27,4 Bestelakoa: %3,3			
4.4. Emakume etorkinen jaiotza-tasa	(2020) 22,67			
4.5. Datozen 5 urteetan EAEn geratzeko asmoa duten 16 urteko atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzaren, enpleguaren eta gizarte-harremanen arloko itxaropenen eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera	(2018) Etxebizitza Mendebaldeko EB: %11,4 Europako beste herrialde batzuk: %26,5 Latinoamerika: %20,67			

	<p>Afrika: %12,32 Txina: %15,0 Munduko gainerakoa: %16,3</p> <p><u>Hobekuntzak enpleguan</u> Mendebaldeko EB: %20,7 Europako beste herrialde batzuk: %49,9 Latinoamerika: %56,30 Afrika: %58,81 Txina: %19 Munduko gainerakoa: %44,9</p> <p><u>Tokiko biztanle-erlazioa</u> Mendebaldeko EB: %0,6 Europako beste herrialde batzuk: %5,8 Latinoamerika: %8,10 Afrika: %7,40 Txina: %16,5 Munduko gainerakoa: %7,40</p>			
4.6. EAEn jaio eta atzeritik Euskadira itzultzen diren pertsonen (18-34 urte) ehunekoa aldi horretan atzerrira emigratzen duten EAEko gazte guztiekiko, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera.	<p>(2019)</p> <p>Ar: G. %34,9 Ar: E. %31,4 Bi: G. %56,7 Bi: E. %40,3 Gi: G. %45,6 Gi: E. %60,5</p>			
5.1. Landa-eremuetako biztanleriaren egitura, adin-taldean, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera Araba 19 urtetik beherakoak (gizonak/emakumeak) 20-64 urteko tartea (gizonak/emakumeak) 65 urtetik gorakoak (gizonak/emakumeak) Bizkaia: 19 urtetik beherakoak (gizonak/emakumeak) 20-64 urteko tartea (gizonak/emakumeak) 65 urtetik gorakoak (gizonak/emakumeak)	<p>(2021)</p> <p>2.959 / 2.714 9.833 / 8.305 3.234 / 3.192</p> <p>5.496 / 5.030 16.980 / 16.445 5.497 / 6.798</p>			
5.2. Landa-eremuen zahartze-indizea, lurralde historikoaren arabera	<p>(2021)</p> <p>Ar.: %113,27 Bi.: %116,81</p>			
5.3. Gizarte Segurantzaren izena emandako lehen sektoreko enpresen kopurua	<p>(2018)</p> <p>971</p>			
5.4. Landa-eremuak sustatzeko laguntzen zenbateko osoa	<p>(2021)</p> <p>51.230.000€</p>			
5.5. Landa-eremuetan banda zabala instalatzeko ehunekoa	<p><i>Egiteke</i> <i>Euskadibandazabala</i></p>			
5.6. Landa-eremuetako merkataritza-establezimenduen batez besteko kopurua	<p><i>Egiteke</i> <i>Eustat</i></p>			

Zeharkako emaitzen ebaluazioaren adierazlea izango da jarduera, proiektu, zerbitzu edo programa batean parte hartu ondoren emantzipatzen diren gazteen kopurua, bai eta estrategiaren ekimenetan parte hartzen duten gazte emantzipatuen kopurua ere, haien emantzipazio-prozesua eta bizi-proiektu autonomia sendotzeko.

Adierazle guztiak hobetu daitezke, eta adierazleak hobetzeko/aldatzeko proposamen arazoituak ongi etorriak dira, ahalik eta aginte-taula osoena eta konparagarriena lortzeko.